

DATORRENA

Korapilo gordiarra

MIKEL URDANGARIN IRASTORZA > 3

AIARALDEA KRISIAN: Enpresen
itxierak eta lanpostuen galera,
eguneroko ogi > 26

2025eko irailaren 27a | XIX. urtea • 946. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«1975», HERRI BATEN MEMORIA

FUSILAMENDUEN 50. URTEURRENAREN HARIRA, ZARAUTZEK MEMORIA ARIKETA
BEREZI BAT EGINGO DU BIHAR, IKUSKIZUN IBILTARI BATEN BIDEZ TXIKIREN
BIZITZA, HERIOTZA ETA BORROKA OROITZEKO. > 12 Andoni CANELLADA | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.
Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Tanya Harmer: «Historia emakume baten ikuspegitik idazteak erakarri ninduen» 04

Emakume idazleen liburuak galarazi dituzte talibanek Afganistanen 08

«1975», memoria ariketa erraldoia prestatu dute Zarautzen 12

Juantxo Egañaren behatzulotik: Txiki eta Otaegi 16

Usue Mori: «Adimen Artifiziala ikuspegi oso tekniko batetik egiten ohituta gaude» 22

Bost ahots kualifikatu Aiaraldeko krisiaren arrazoiak ulertzeko 26



SINADURAK:

- 03 **Mikel Urdangarin Irastorza:** Korapilo gordiarra
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Etxebizitzaren arazoa
- 11 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Fikzioa profezia egin da
- 18 **Amaia Ballesteros**
- 19 **Maidar Iantzi Goienetxe:** 20.000 haur
- 19 **Xabier Mikel Errekondo:** Orgasmoa
- 20 **Ixone Badiola Lekue, Naiara Arriola Garicano eta Gabriel Rodriguez San Juan:** Inhibizio Latentea: testigantzetarako banakako arreta, faktore garrantzitsua
- 21 **Iker Barandiaran:** Sarearen askatasun eza
- 30 **Elena Lazkano Ortega:** Zein da zein, Pepper?



{ datorrena } Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Korapilo gordiarra

Kristo aurreko 330 urtea. Kontakizun mitikoaren arabera, Alexandro Handiaren ejertzito loriatsua Gordio hiri atarira heldu zen eta mehatxu egin zien, hiria suntsitu eta konkistatuko zuela esanez. Gordiarrek, soseguz, enbaxadoreak bidali zituzten, konkistatzaileari erronka botaz: «Ados, hiria entregatuko dizugu... baldin eta Gordiako korapiloa askatzea lortzen baduzu». Irribarretxo maltzur bat zuten ezpainetan, ez baitzen edozein moduzko korapiloa. Urteetan zehar josis, Zeusen tenplura lotuta zegoen. Ezinezkoa zen lotura jainkozko hori giza eskuek askatzea. Mendeetan zehar inork ez zuen lortu, behintzat.

Alexandro Handiak baietz, onartzen zuela desafioa. Horrela, tenplura eraman eta hantxe pausatu zioten korapiloa, aska zezan. Gordiarrak lasai antzean zeuden, «a zer koitadua!» esanez ahapeka. Halako batean, baina, Alejandrok ezpata atera eta “zast!”, supituan moztu zuen korapiloa, «askatzea edo moztea berdina da» aldarrikatuz. Jarraian, hiria konkistatu, erre eta sekulako triskantzak eragin zituen. Sugarren artean, gordiarrei ez zien harritzeko ere astirik eman.

Andreas Malmek Palestinako genozidioaz eta krisi ekosozialaz emandako hitzaldi batean egon naiz berriki, eta haren hitzek “zast!” horixe ekarri didate gogora. Izan ere, genozidioa «mugen haustura jarraitu» bezala definitzen du suediarrek: «Mugak banan-banan hautsi eta gero hori eguneroko normalitate bihurtzen dute», zioen.

Adibidez, hasieran Gaza Hiriko al-Ahli osasun-etxeari eraso egin zioten. «Baina, baina... nola da posible!», harritu ginen Mendebaldeko gordiar garaikideak. Israelek, burlaizez, horixe bera egin zuen beste hainbat osasun-etxerekin. Geroz eta intentsitate handiagoz egin ere, bonben poderioz eguneroko ogi bilakatu den arte. Irin bila joandako palestinarren kontrako sarraskiak ere sumina sortu zuen aurrena; egun, ordea, jana eta ura banatzeko guneak eguneroko heriotza-zentro bilakatu dira. Eta kazetarien postuak, eta kanpalekuak, eta Nazio Batuen egoitzak, eta kaleak... Finean, Gaza osoa. Helburua argia da: palestinarren

bizitza posible egiten duen mataza sokaz soka ebaki eta hori normalitate bilakatzea.

Malmek dioenez, soka edo muga bat hausten duten aldiro gordiarren inozentziaz erantzuten dugu: «Baina, baina... Honetan ez ote dira urrunegi joan? Oraingoan ez ote dituzte geldituko?». Alexandro Handiak nola, hurrengo muga ere gaindituz erantzuten du erregimen sionistak. Behin eta berriz eta berriz eta berriz, argi gera dadin ez dagoela horiek geldiaraziko dituen arau edota korapilorik.

Malmen iritziz, logika nekropolitiko hori ez da Palestina murrizten, gainera: «Muga horiek suntsitzeko prest dagoen ordena planeta suntsitzeko ere prest dago». Horren lekuko, ekosistemako sareak jada oso hauskor badaude ere, aitzoarekin hariak banan-banan moztu jarraitzen du kapital fosilak: «Zulatu, zulatu, zulatu!», horixe da logika, Trumpen orroak ezin argiago islatzen duenez. Kasu honetan ere, muga oro enperadore modernoek gainditu beharreko desafio (edo «estortsio») bat baino ez da. Desohore bat, haien burua lurraz gaindikotzat duten giza-jainko axolagabeentzat.

Bistakoa da zein den istorio horren ikasgaia, baina halaxe ari dira, askatzea ebakitzearekin nahastu eta bizi-

Helburua argia da: palestinarren bizitza posible egiten duen mataza sokaz soka ebaki eta hori normalitate bilakatzea

tzak masiboki suntsitzen. Horren aurrean, «Askatzera lotuak» leloa irakurri eta askatasunerako bidea justu kontrako norabidean urratu beharko dugula iradoki dit. Boteretsuen ezpatak –zer esanik ez nuklearrak– kamustu eta korapilo emantzipatzaileak josi, inork horiek ebakitzeko ahalmenik izan ez dezan: Israel eta haren konplizeak geldiarazi, eredu sozioekonomikoa planeten mugetara ekarri, ekosistemako hariak berregin, ehun komunitario eta instituzional biziak egituratu, borrokak eta herriak berdintasunetik artikulatu... Lotu, lotu, lotu, mataza partekatuko barrunbe infinituetan aske izateko. •



«Beatriz Allende
ahaztu egin da
bere ideiak eta
proposamen
politikoak ez
zetozelako bat
diktadura osteko
Txile
neoliberalarekin»

TANYA HARMER

IRAKASLEA ETA ADITUA

Tanya Harmer irakaslea Gerra Hotzean eta Latinoamerikan aditua da. Txileko prozesu iraultzailea gertutik ikertu du, eta ikerketa horretatik, «Beatriz Allende. Una vida revolucionaria en América Latina durante la Guerra Fría» liburua idatzi du.

«Justizia sozialarekin eta eraldaketarekin zuen konpromiso irmoa nabarmenduko nuke, baita lagunekiko, familiarekiko eta iraultzarekiko zuen leialtasuna ere»

Beatriz Ximena Allende Bussi 1942ko irailaren 8an jaio zen Txilen. Salvador Allende eta Hortensia Bussiren bigarren alaba izan zen. Txileko Santiagon hezi zen, ezkertiar giro batean. Hamalau bat urte zituela, herrialdeko desberdintasun sozioekonomikoez kontzientzia hartzen hasi zen, bere aitak egiten zituen bidaietan laguntzen hasi zenean.

«Txiki-txikitatik jarduera politikoetan sartuta egon ginen. Aitak politikan parte hartzera, ikastera, trebatzera... animatzen gintuen», gogoratu zuen behin. Bere aitak bezala, Medikuntza ikasi zuen. Osasun publikoaren alorrean lan egin zuen pediatria eta unibertsitateko irakasle gisa.

Txilen, Kuban eta Latinoamerikan hamarkada horietan izan ziren eraldaketa politikoaren eta sozialen lekuko zuzena eta sustatzailea ere izan zen. 1970. urtean Allendek Unidad Popularreko (UP) hautagai bezala presidentetzarako hauteskundeak irabazi zituen, medikuntza utzi zuen bere idazkari pribatua izateko.

Txileko partidu Sozialistan militante izan zen gazte-gazte tatik. Kubako Iraultzarekin maitemindu egin zen. 1967an Erneste «Che» Guevara hil ostean, Bolivian herrialde desberdinetako pertsonaz osatutako bigarren gerrilla bat sortzen saiatu zen Kubatik. Txileko MIR mugimendu iraultzailea begi onez ikusten zuen; are gehiago, MIR eta Allenderen arteko zubi-lanak egin zituen.

Augusto Pinochet jeneralaren Estatu kolpeak sozialismo-rako bide txiletarra odoleztatu zuen. Bere borondatearen

kontra, La Moneda jauregitik atera zen, Salvador Allende presidenteak hala aginduta. Erbesteko bidea hartzera behartuta, Karibeko irlan babestu zen bere senarrarekin, Luis Fernandez Oña kubatarrekin, eta bere bi seme-alabekin. Habanan, erresistentzia txiletarrarekin nazioarteko elkartasun kanpainan buru-belarri aritu zen. Baina 1977an bere buruaz beste egin zuen. Pertsona isila zen. Ezagutu zu-

tenek esaten dutenez, pertsona indartsua eta hauskorra zen aldi berean.

Tanya Harmer ikerlariak bere istorioa eta bizipenak erre-kuperatu ditu “Beatriz Allende. Una vida revolucionaria en América Latina durante la Guerra Fría” liburuan. Vicente Lanek itzulita, gazteleraz kale-ratu berri du LOM argitaletxe txiletarrak.

Gerra Hotzak Latinoamerikan izan zuen eragina sakon

ikertu du Harmerrek. Asko idatzi du 70eko hamarkadako Txileko prozesu iraultzaileaz, Kubako Iraultzak Latinoamerikan izan zuen eraginaz, kontrairaultzaz eta Gerra Hotzaren testuinguruko herrialde latinoamerikarren arteko diplomaziaz, elkartasun sareez, baita emakumeez eta generoaz ere.

Nola izan zenuen Beatriz Allenderen berri? Zerk erakarrizintuen?

Unidad Popular alderdiaren gobernuari eta Gerra Hotzari buruz nire liburua idazten ari nintzela, Beatriz Allenderen izenarekin topo egin nuen. Bere aita Salvador Allenderen lau hauteskunde kanpainetan parte-hartze aktiboa izan zuen, lehen lerroan egon zen mobilizazio eta elkarrizketa guztietan. Emakume eta iraultzaile gisa izan zuen rola ikertzeko jakin-mina piztu zitzaidan.

Zerk eraman zintuen berari buruzko liburu bat idaztera?

Nire lehenengo liburua nuen garaian idatzi gutxi zeuden Beatriz Allenderi buruz. Esan bezala, jakin-minez eta lilurata nengoen berarekin, eta gehiago jakin nahi nuen bera partaide zen belaunaldi iraultzaileaz. Historia emakume baten ikuspegitik idaztearen ideiak ere erakarri ninduen, eta Che Guevararen garaian emakume iraultzailea izateak zer esan nahi zuen ulertzeak.

Zer ekarri dizu liburua idazteak, eta zer esan nahi du zuretzat Beatriz Allendek?

Latinoamerikan Gerra Hotzak izan zuen giza dimentsioaren eta eguneroko errealtateen gaineko ulerkera berri bat ekarri zidan liburu honek. Eguneroko bizitzaren izaera erabat





BIBLIOTECA VIRTUAL SALVADOR ALLENDE

politikoa zen. Testuinguru horretan, emakumeek protagonismoa berreskuratu zuten, sutsuki sinetsita zuten aldaketaren alde borrokatu zuten. Beatriz borroka horren protagonista eta ikurra da.

Zer nabarmenduko zenuke Beatrizi buruz emakume eta politikari gisa, eta bere aitarekin zuen harremanaz?

Justizia sozialarekin eta eraldaketarekin zuen konpromiso irmoa nabarmenduko nuke, baita lagunekiko, familiarekiko eta iraultzarekiko zuen leialtasuna ere. Aita biziki maitatu zuen, baina, aldi berean, berearekin zintzoa eta argia zen, esaten zuenarekin ados ez zegoenean. Elkarrenganako konfiantza eta leialtasunean oinarritutako harremana zen Salvador Allende eta Beatrizen artekoa. 1973ko irailaren 11n La Moneda jauregitik Salvador Allende aita eta presidentea

bertan utzita irten behar izateak bihotza apurtu zion.

Politikak berebiziko garrantzia zuen bere bizitzan, baita medikuntzak ere. Osasun publikoari balio handia ematen zion eta aldaketa sozialerako bide gisa ikusten zuen. Horrek bultzatuta mediku izatea erabaki zuen, aita bezala.

Emakumea izate hutsagatik, lan gehiago egin behar izan zuen Medikuntzako unibertsitatean matrikulatu ahal izateko, matrikula eskaeren %15 soilik ziren emakumezkoenak garai hartan. Baina unibertsitatean nabarmendu egin zen, oso ikasle ona zen eta bere gelakideek asko estimatzen zuten. Horretaz haratago, Beatriz eta, oro har, medikuntzako ikasleen belaunaldi hori sinetsita zegoen osasuna baldintza sozioekonomikoekin lotuta zegoela, eta medikuntza eta arreta desberdintasunaren eta

pobreziaren konponbidearen parte zirela.

Nola deskribatuko zenuke emakumeen parte hartze politikoa? Beatrizek eta bere ahizpek esku hartze aktiboa izan zuten Allenderen presidentetzarako lau hauteskunde kanpainetan. Bere aita ekitaldi politiko gehienetan lagundu zuten Txilen.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan emakumeen presentzia politikoa handitu egin zen ezkerrean. Ikasle mugimenduan sortzen ziren eztabaidetan, hautagaiei babes adierazteko egiten ziren mobilizazioetan eta ekimenetan parte hartzen zuten eta partidu politikoetan militatzen zuten. Eskasiari aurre egiteko, elikagaiak eta hornidurak banatzeko ardura ere bazuten. Baina, esan beharra dago baita ere, apenas zegoela emakume liderrik. Hori dela eta, emakumeen papera eta

«2019. urtean Txilen egon ziren protesten eta ‘udaberri feminista’-ren testuinguruan, belaunaldi iraultzaile hura eta, batez ere, emakumeen parte hartzea berreskuratzen hasi ziren Txilen»

protagonismoa ahaztu egin da neurri handi batean. Hortaz, garrantzitsua deritzot protagonismo hori berreskuratzeari eta iraganari egin zioten ekarpena aitortzeari.

Eskuinean ere, emakumeek gero eta protagonismo handiagoa izan zuten politikan, nahiz eta askotan haien esku hartzeak apolitiko gisa kokatu. UP-ren aurkako oposizioaren gorakadan funtsezko eragileak izan ziren, adibidez.

Liburuan aipatzen duzu 1964ko presidentetzarako kanpainan Eduardo Frei Montalva Alderdi Kristaio-demokratako (PDC) lehendakariak bere emaztea goraiatu zuela etxean seme-alabak zaintzen geratzeagatik, eta senarra eta emaztea politikan aldi berean ezin zirela egon defendatu zuela. Beste aldean, Allendek emazteari eta hiru alabei –Carmen Paz, Beatriz eta Isabel– protagonismo handia eman zien eta Emakumezkoen Komando Nazionala ere martxan ipini zuen.

Halaber, 1964ko hauteskundeetan emakumezkoen botoen %62,8 Freiren aldekoak izan ziren. Langile sektoreetan eta komunitateetan, %50ek baino gehiagok Freiri eman zion botoa. Kanpaina gogorra izan zen hura. AEBen babes ekonomikoa izan zuen. Eskuinak emakumeei zuzendutako «beldurraren kanpaina» abian ipini zuen. Allendek irabaztekotan, Txile diktadura komunista ateo bilakatuko zela, FRAPek familiak eta emakumeek gizartean zuten estatusa suntsituko zituela eta tankerako mezuak bota zituen etengabe. “El Mercurio” egunkariak Sobietar Batasunean emakumeak «izugarri gogorrak ziren



lanak egitera behartuta» zeudela esaten zuen artikulua sorta bat argitaratu zuen. Eta “Eva” aldizkariak Moskuko egunero-ko bizitzari buruzko erreportaje eksklusibo bat kaleratu zuen astean sei emanalditan. Horren arabera, «emakumeak izoztuta ibiltzen ziren elurretan, ordu luzez lan egin behar zuten soldata apalen truke, oinarritzko elikagaiak lortzeko ilara amaigabeak egiten zituzten eta apartamentu txiki eta gainezkatuetan bizi ziren». Kuban haurrak Sobietar Batasunera milizietan parte hartzeko bidaltzen zituztela zioen zurrumurrua ere bolo-bolo zabaldu zuen eskuinak, «beldur-raren kanpaina»-ren parte.

Honi aurre egiteko, Salvador Allendek bere arreba Laurak zuzendutako Emakumezkoen Komando Nazionala eratu zuen eta emakumeak beren aldetik mobilizatzen hasi ziren. Egin zituzten ekimenen artean, adibidez, Allenderen A hizkia oihalezko fardeletan josi zuten. Milaka emakumek berdina egin zuten. Alfabetatze taldeak ere nonahi bultzatu zituzten.

Nola hartu zuten Allendek berak eta familiak 1964ko hauteskundeak galdu izana, AEBen Freiren kanpainaren aldeko esku hartzea ikusita?

Kolpe handia izan zen beraientzat. Hauteskunde kanpaina horretan inoiz baino sartuago egon zen familia. Une erabakigarria izan zen Beatrizentzat, hiru alaben artean izaera politikagoena zuena baitzen. Ordura arte demokrazian zuen konfiantza galdu zuen hein handi batean. 1964ko ondorengo epean buru-belarri ibili zen medikuntzan, bai formakuntza aldetik baita lan aldetik ere. Medikuntzaren alorrean

aktibitate handiko urteak izan ziren.

Nola deskribatuko zenuke emakumeen presentzia garai-ko hedabideetan?

Medioen arabera aldatu egiten zen, baina, orokorrean, esango nuke muga batzuen barruan kokatzen zutela. Haien parte hartze politikoa txalotzen zuten arren, askotan emakumeen estetikarekin, janzkerarekin edo amatasunarekin lotzen zituzten elkarrizketak, erreportajeak edo albisteak. Garai hartako Txileko gizarte-ko genero-arau tradizionaletara mugatzen zen.

Zer-nolako eragina izan zuen Kubako Iraultzak Txileko politikan eta Beatrizengan?

Kubaren eragina Txilerengan eta Beatriz berarengan izugarria izan zen. Baina hori ulertzeko, garaiko testuingurua ezagutu eta ulertu behar da. Ezkerrak hauteskundeetan hain estu galdu izan ez balu eta ageriko desberdintasun sozioekonomikoen gainean gizarte mailan ezinegon hori egon izan ez balitz, ez dut uste hain eragin handia izango zuenik. Txileko Kuba aukera eta alternatiba gisa ikusten zuen. Beatrizi, 1960ko hamarkadan Kubara egin zuen bidaiak bizitza eta ikuskera aldatu zizkion.

Eta zer-nolako harremana izan zuen Beatrizek MIR mugimenduarekin?

Nahiz eta MIR mugimendu iraultzailearen partaidea ez zen izan –Partidu Sozialistari eta bere aitari zion leialtasunagatik–, politikoki, Beatrizek begi onez begiratzen zuen; MIR-eko lider asko lagun zituen eta zubi-lanak egin zituen mugimenduaren eta bere aitaren artean. GAP sortu zenean, pro-



EUROPA PRESS

«Historia emakume baten ikuspegitik idaztearen ideiak ere erakarri ninduen, eta Che Guevararen garaian emakume iraultzailea izateak zer esan nahi zuen ulertzeak»

tagonismo handiagoa izan zuen eta Allende presidentea babesteko ardura eman zion. Bolivian izan zuen esku hartze iraultzaileagatik eta Kubarekin zuen harreman estuagatik, gertuko eta Allenderekiko fidelak ziren pertsonen osaturiko segurtasun gorputz berezi hori osatzeko gaitasuna zuen.

Txileko politikan eta Allenderen Gobernuan protagonismo handia izan zuen arren, ahaztu egin da. Zergatik?

Batetik, diktaduraren erdian oso gazte hil zelako. Bere buruzaz beste egin izana kritikatu zuten. Horrez gain, milaka txiletar desagertuta, atxilotuta edo kartzelan zeudela gertatu zen. Bestetik, Beatriz Allende ahaztu egin da bere ideiak eta proposamen politikoak ez zetozelako bat diktadura osteko Txile neoliberalarekin. Ez zegoen lekurik Beatriz eta bera bezalako militanteak gogora-

tzeko. 2019. urtean Txilen egon ziren protesten eta «udaberri feminista»-ren testuinguruan, belaunaldi iraultzaile hura eta, batez ere, emakumeen parte hartzea berreskuratzen hasi ziren Txilen.

Nola baloratuko zenuke Allendek utzi duen legatua?

Bere ondarea orain dela hamarkada batzuk baino lehiatuago sentitzen da egungo Txilen. Eskuinak historia berri-datzi eta diktadura zibil-militarra zuritu nahi du. Beatrizi buruzko nire liburua, neurri batean, ahalegin bat izan zen ulertzeko zergatik sinesten eta borrokatzen zuten hainbeste txiletarrek aldaketaren alde kolpearen aurreko urteetan eta gero zergatik eta nola borrokatzen zuten jendeak diktaduraren aurka, nola eragiten zuen eguneroko bizitzetan, eta zergatik den garrantzitsua haren krimenak inoiz ez ahaztea.

LIBURUEN DEBEKUA

Emakume idazleen liburuak galarazi dituzte talibanek Afganistanen

Afganistango unibertsitate nagusietako irakasleek aho-
tsa altxatu du-
te: Goi hez-
kuntzako instituzioetan emakumeek idatzitako liburu guztiak galarazi dituzte, baita Irango egileenak eta eskubi-
deak, demokrazia eta Konsti-
tuzioa lantzen dituztenak ere.

Hala azaldu dio EFE agen-
tziari Nangarhar Unibertsita-
teko irakasle batek, bere iden-
titatea babestuz: «Agintari-
ek hamabost kideko batzorde bat
izendatu zuten materiala gain-
begiratzeko. Kabulgo Uniber-
tsitateko liburutegia aztertu
zuten eta 850 titulu inguruta-
tik 600 bat erretiratu zituz-
ten». Irakasleari harrigarria

 **POLITIKA /** Maider IANTZI GOIENETXE

Emakumeek idatzitako liburu guztiak debekatu dituzte talibanek Afganistango unibertsitateetan. Egile iranda-
rrenak eta eskubideak, demokrazia eta Konstituzioa jo-
rratzen dituztenak ere bai. Liburutegiko obrak aztertu,
eta 850 titulutatik 600 erretiratu dituzte, adibidez, Ka-
bulgo Unibertsitatean, irakasleek salatu dutenez.

iruditzen zaio hamabost kide-
ko talde batek egun gutxi ba-
tuetan liburu guztiak begira-
tu eta xariaren edo kultur
balioen kontrakotzat jo izana.

Teknologiarekin eta teknika-
rekin erlazionatutako argital-
pen batzuk ere baztertu zituz-
ten. Informazio Geografikoko

Sistemen ingurukoak, errate
baterako.

GARBIKETA SISTEMATIKO BAT

Zahra Nader kazetaria “Zan Ti-
mes” emakume afganiarren
hedabideko zuzendaria da. Be-
re arabera, debeku honek tali-
banen estrategia zabalenari


Neurririk hartu ezean, gero
eta neskato gehiago
baztertuko dituzte eskolatik
Afganistanen.
WANMAN-UTHMANIYYAH

erantzuten dio. «Ikusten ari
garena ez da neurri isolatu
bat, purga edo garbiketa siste-
matiko baten parte baizik.
Helburua argia da: emaku-
meen ahotsak, presentzia eta
izenak unibertsitate afgania-
rretatik ezabatzea».

Naderrek oroitu du, emaku-
mezko egileen liburuak debe-
katu aitzinetik, agintari-
ek neskatoak eskolatik kanpo utzi
zituztela seigarren gradutik
aurrera. Emakumeei goi ikas-
ketak galarazi zizkieten eta
emakume irakasleak lanpos-
tutik kendu zituzten. Kazeta-
riak agertu duenez, «ikasketa
planak gainbegiratzeko ari den
batzordeak etengabe luzatzen
du debekatutako liburuen ze-
rrenda, bereziki talibanen
ideologiari aurka egiten diote-
nak eta emakumeek idatzita-
koak gehituz».

2021eko abuztuan boterea
berreskuratu zutenetik, gero
eta murrizketa gehiago jar-
tzen ari zaizkie talibanak
emakumezkoei. Bigarren
mailako edo unibertsitateko
ikasketak egitea, nazioarteko
erakundeetan lan egitea eta
gimnasio, parke eta bertze es-
pazio publikoetan sartzea de-
bekatu diete, bertzeak bertze.
Hedabideetan eta eremu pu-
blikoan ere mugatu dute
emakumeen presentzia. Irrati
eta telebistako emanaldietan
agertzea eta ekitaldietan aho-
tsa altxatzea galarazi diete.

Gobernu talibanak lehen-
dik abisatua zuen Hezkuntza
eta Goi Hezkuntza ministe-
rioek programa akademikoak
aztertu eta ikasgaiak eta libu-
ruak ezabatu zituztela, beren
politiken aurka zihoazelako.
«Ez dira bateragarriak prin-
tzipio islamiarrekin, kultur
arauekin eta balio afganiarre-
kin», deskribatu zuten be-
raiek.



Unicefek ohartarazi duenez, lau urte bete dira talibanek neskatoei bigarren hezkuntza debekatu zietenetik. 2025 amaierarako, 2,2 milioi neraberi ukatu izanen diete, neurri horrekin, ikasgeletan ikastea.

INPAKTU HANDIA NERABEENGAN

Catherine Russell Unicefen zuzendari exekutiboak ikasgeletatik baztertzeak neska nerabeengan duen inpaktua azpimarratu zuen: «Antsieta-tera, depresiora eta suizidiora ere eraman ditzake etxean egotera behartzeak».

Neurririk hartu ezean, gero eta neskato gehiago baztertu-ko dituzte eskolatik Afganistanen. Honako irakurketa egin du Russellek: «Nazio batek ere ezin du aurrera egin bere biztanleriaren erdia atzean gelditzen bada. Herrialdearen garapen ekonomikoa eta erresilientzia emakume eta gizonen erabateko parte-hartzearekin etorriko dira».

Debekua 2030era arte luzatuko balitz, BPG afganiarraren galera pilatua 1.500 milioi dolarrekoa izanen litzateke, Unicefen arabera.

«Neska afganiarrak ez dira ikasgai akademikoak soilik galtzen ari; kontaktu soziala, hazkunde pertsonala, beren etorkizuna eraikitzeak aukera eta beren ahalmena garatzea ukatzen diete», adierazi du NBEko haurtzarorako agenzia-riaren zuzendariak.

Hortaz, debeku hori bertan behera uztea eta Afganistango neska oro etapa guztietan eskolara joatea baimentzea exijitu die talibanei.

Gobernu talibanak, ordea, ez dirudi bide hori hartuko duenik, murrizketa horiek defendatu baititu berriki, lege islamiarrean edo xarian oinarritzen direla argudiatuz.

Lau urte bete dira talibanek neskatoei bigarren hezkuntza debekatu zietenetik. 2025 amaierarako, 2,2 milioi neraberi ukatu izanen diete, neurri horrekin, ikasgeletan ikastea

Manizha Bakhtari da nazioarteko foroetan oraindik Afganistan ordezkatzeko duen azken emakume enbaxadorea. Vienatik, talibanek «genero apartheida» ezarri dutela salatu du

«Neurri horiek kritikatzeko dituztenek ez dute xariaren interpretazioa ongi ulertzen», azaldu du.

AZKEN EMAKUME ORDEZKARIA

Manizha Bakhtari da nazioarteko foroetan oraindik Afganistan ordezkatzeko duen azken emakume enbaxadorea. Aus-

triako eta Nazio Batuetako agintariek akreditatzen dute Viena. Bertatik, talibanek «genero apartheida» ezarri dutela salatu du, emakumezko afganiarrak herrialdeko bizitza publikotik ezabatzeke.

2021eko abuztuan Kabul erori zenetik, Bakhtari ezohiko egoera batean dago: dagoeneko existitzen ez den gobernu bat duen estatu baten ordezkari da, agintari berriek ez baitute nazioarteko aitortzarik, Errusiarena ez bada.

Hala ere, bere postuan darrai, azaldu duenez, erantzuteko agintaririk ez badu ere –ez die talibanei legitimitaterik onartzen–, afganiarrak ordezkatzeko segitzen duelako. «Nire taldeak eta nik hemen jarraitzea erabaki genuen Afganistango herria ordezkatzeko», azaldu dio EFERi elkarrizketa batean. «Badakit ez dudala gobernurik eta agian ez dute egoera honen definizio legalik topatuko, baina hori da gertatzen ari dena eta jada lau urte pasatu dira kolapsotik».

Bere posizio diplomatikoa baliatuz, populazio afganiarraren destinoaz ez ahazteko eskatu dio nazioarteko komunitateari, bereziki Asia erdialdeko herrialdeko 20 milioi emakumeez. Ez du talibanen erregimenaren azpian Afganistan bakean eta lasai bizi den diskurtsoa konpartitzen. «Bakea ez da gerra falta, justizia baizik», argitu du, eta hori falta da Afganistanen.

«Ia hogeitaz nazioarteko gure aliatu guztiek terroristatzat jo zituzten talibanak. Beraz, akordio politiko bat aldatuz soilik ezinezkoa da beren izena aldatzea eta beren izaera ezkutatzea», nabarmendu du. «Bake elkarrizketekin» herrialde batzuek talibanak legitimatu dituztela gaitzetsi du azken emakume ordezkariak.



Emakume eta neska afganiarren eskubideak defendatzeko mobilizazio bat Alemanian. NK NI



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Etxebizitzaren arazoa


Hau etxebizitzaren inguruan idatzitako beste artikulu bat da. Baina irakurtzeari utzi baino lehen, utzidazue esaten: badira gertuko bi aditu liburu bana idatzi dutenak berriki, eta arazoari **SOLUZIOA** ematen diotenak. Ze, antza, etxebizitzaren arazoak badu aterabide teknikorik. Liburuen izenburuek diote sortu den egoeraren aurrean ekintzak egin daitezkeela eta premiazkoak direla: “El problema de la vivienda. Cómo desactivar la bomba de relojería que amenaza con colapsar España” eta “Etxearen korapiloa nola askatu. Etxebizitza-politika justurako ga-koak”. Eta gainera, bi adituak tesi antzerakoarekin dabil-tza gure euskal errealitateari begira, eta diote: alokairuko etxe-bizitza publiko parke bat sortzea funtsezkoa da etxebizitzaren eskubidea bermatzeko. Javier Buron eta Unai Fernandez de Betoño dira liburuen egileak, hurrenez hurren, ibilbide eta lekurtze desberdinak dituzten arren, lehena adminis-trazioan eta bigarrena akademia eta politikan, etxebizitzaren auziari irakurketa antzerako eta osagarria egiten diote, eta bateratze horrek tesiari indarra ematen dio-la iruditzen zait.

Soluzioa badago, baina bi liburuetan 100 orrialde baino gehiago gastatzen dituzte egin beharrekoak azaltzeko. Fernandez de Betoño-k 30 ekintza zenbatzen ditu, eta gehienak elkarrekin eta aldi bertsuan martxan jarri behar omen dira. Helburua, etxebizitzaren merkatuan eragitea, baina arazoak hamaika ertz ditu, finantzaketa, kudeaketa eta etxebizitza-politika bateratu baten beharra, administrazio lokal eta estatalean eraginarekin. Biek azpimarratzen dute denboraren faktorea: etxebizitza publiko par-

ke bat egiteak hamar urte behar ditu gutxienez, eta horregatik epe labur eta luzeko ekimenak behar ditugu, ezin zaio gaur egungo 25 urteko gazte bati esan hamar urtean etxebizitza merkatua beheratua izango dela. Eta inbertsioa ez da merkea eta luzaroan mantendu behar da, bestela ez dugu bere eragina nabarituko. Ausardia eta konbentzimendu argia behar da politikarien aldetik, esandakoaren arabera.

Diotenagatik, hainbeste sinesmen oker eta faltsu daude etxebizitzari lotuak, eta hainbestetan entzuten ditugu kale eta telebistako aditueta, ezen lehenetariko urratsa ulermen finkoak deseraikitzea baita. Gure kultura jabetzari lotua dagoela sinisten dugu, batzuetan ematen du jaiotzeko joera baten antzera ulertua dela. Historiak dio jabe-goan bizitzeko ohitura 60ko hamarkadan frankismoak ezarri zuela, ordura arte alokairuan bizitzea ohikoena ze-

larik. Gainera, alokairu publikoa sozialari loturik daukagu, estigmatizaturik, dirurik ez dutenen bizi-aukera bat delakoan. Bestalde, merkatuaren prezioetan eragiteko etxebizitza publiko kantitate handi batek “berez” orekatuko duela sinetsita gaude. Baina frogaturik daukagu, gurean, ekuazioak ez duela horrela funtzionatzen. Etxebizitza publiko berria konbinatu behar da alokairukoarekin, etxebizitza pribatuak erosi, egokitu eta hutsak merkaturatuz, lurzoruari etxebizitza-erabilera baimenduz eta lagapen edo etxebizitza-erabilera ustiapena eskainiz. Azkenik, etxe-jabegotza(k) duen gizartean, prezioak jaitsi nahi baditugu, kasu askotan gure interesen aurka egingo dugu. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Fikzioa profezia egin da

A dos nago Peter Bachekin, George Orwellen “1984” eleberriko «Gerra da bakea. Askatasuna da esklabotza. Ezjakintasuna da indarra» paradoxa oso egungoa da. Boterearen jabeentzat, gerra bakez mozorrotu daiteke. Baina gerra sufritzen dutenentzat, hori besterik ez da: gerra. Bakeak berdin segitzen du: lorrezin. Eta hildakoek bakarrik ikusiko dute gerraren amaiera.

Sarraskiaren korridore amaiezinean gabiltza. Heriotzaren betiereko dantzan kuxkuxeroak gara. Eta, hala ere, kontua gizatasun poxi batez aztertzen bada, bake-rako bidexkak azaltzen dira. Bakeak ezinezkoa dirudiela ez da tragedia handiena, anbizioak eta egoak mugatzeko mekanismo guztiak gainditu direla da.

Steinbeck-ek «gerra oro animalia pentsalari lez gure porrotaren sintoma da» oihu egin zuen. Begira Gaza, hondakinetan datza, genozidio betean. Libano, Yemen eta Iran korapilatuta, Siria, eta oraintsu Qatar, arrastratuta. Su-etenaren inguruko berriak irakurtzen genituen, aukerak zaudela, Israelek Hamaseko negoziatzaileak Dohan bonbardatuz azken eszeptikoak konbentzitu dituen arte: gerra da helburua, ez bakerako konpromisoa.

«Gerra udaberrian gu hiltzen saiatu zen» idatzi zuen Tim O’Brienek, Vietnamen soldadu izan zenak. Sudanen, baina, gerrak ez du urtarorik. Uztak irensten ditu, lasaigarria den arnasaldi oro, gosetea areagotuz, herrixkak kiskaliz, milioika desplazatuz. Abstraktuan, bake bidea erraza dela dirudi: armak isilarazi, laguntzarako korridoreak zabaltu... Baina Khartumen, edo Darfurren, hori da bakea: jaten duen haurra, egunsentian zutik den etxola, tirorik gabeko gaua.

Tolstoientzat «bi dira gerlari indartsuenak: Denbora eta Pazientzia». Ukrainarentzat, baina, denbora eta pazientzia luxu onartezinak dira. Bakea, baldin badator, konpromiso mingarriekin dator, besteen bizitzen

alde arriskatzera prest dauden agintariekin. Baina boterearen lilurak sufrimenduaren, errukiaren, gainetik segitzen duen bitartean, pazientzia agortuko da.


Danterentzat «miseria garaietan zoriontasuna oroitzea baino min handiagorik ez dago». Myanmarren zoriontasuna oso urrutiko oroitzapen sentitzen da. «Lehoiak historia kontatu arte, ehiztaria beti izango da heroia» dio Afrikako atsotitzak. Etiopian, lehoiak eta ehiztariak, biak odolustu dira. Tigrayko gerra «bukatu» omen da, baina sutan darrai, milaka jende hilez, desplazatuz. «Dena erortzen ari da, zentroa ezin da eutsi» idatzi zuen Yeats irlandarrak. Sahel eskualdean anabasa eta ordenaren arteko muga etengabe desitxuratzen ari da, amildegiaeren ertzean balantzaka dabiltza. Eta bakeak irekita mantentzen diren eskolak

Sarraskiaren korridore amaiezinean gabiltza. Heriotzaren betiereko dantzan kuxkuxeroak gara. Eta hildakoek bakarrik ikusiko dute gerraren amaiera

beharko ditu, ahaztuengana iristen diren zerbitzuak, kontuak ematen dituzten agintariak. Bestela, anabasa izango da eusten duen zentro bakarra.

Graham Greenek zioen: «Atzera-bueltarik gabeko puntu bat dago, bere momentuan oharkabea, bizitza gehienetan». Haitik aspaldi urratu zuen muga hori. Armetatik harago etorkizun bat eskaintzeke ez da bakerik, gobernua zerbitzatzeko eta ez harrapakari izateko dagoela demostratzeko. Horiek gabe, interbentzio militar oro hurrengo kolapsoaren aurretiko etena da.

Armagintzako akzioek gora egiten dute jaurtitzen den misil bakoitzeko, ezegonkortasuna mertzenarioen pagotxa da, energia erraldoiak kaosarekin aberasten dira eta bijilantziarenak, beldurrarekin. Jende korrientearentzat, gerra hondamena da; hain errotua dagoen gerraren ekonomiarentzat, negozio biribila. •



Bihar eguerdian egingo dute Zarautzen “1975” ikuskizun ibiltaria, gaur 50 urte Bartzelonan fusilatu zuten Jon Paredes Manot Txiki oroitzeko memoria ariketa erraldoia. Ekitaldia Azken Portu auzoko Egaña kalean abiatuko da 12.00etan, Txiki eta bere familiaren etxean, eta herriko leku esanguratsuetatik igaroko da, Txikiren bizitza, heriotza eta borroka irudikatuz.

«Helburua da gertaera haiek bizi izan genituen belaunaldiak hurrengoari, eta datorrenari ere bai, bigarrena ere hemen delako, transmititzea. Esatea ‘hau gertatu zen’. Zeren memoria galtzea oso erraza da. Gaurko munduan are errazagoa. Eta nahiko genuke ekitaldi hau denboran errepikatzea. Gu ez gara egongo, baina

HERRI BATEN MEMORIA

«1975» ikuskizun ibiltaria Zarautzen, Txikiren bizitza, heriotza eta borroka oroitzeko dituen memoria ariketa

 **KULTURA /** Asier AIESTARAN

Josu Txapartegi (1946), Andoni Egaña (1961) eta Uxue Alkorta (2001) «1975» ikuskizunean parte hartuko duten ehun kultur gileetako hiru dira. Belaunaldi desberdinen ordezkari, memoriaz eta transmisioaz hausnartzeko bildu ditugu fusilamenduen 50. urteurren honetan.

beste batzuk jarraitu dezatela. Egun haiek oso inportanteak izan zirelako. Eta guretzat oso garrantzitsua den beste kontu bat da lekuak sinbolizatzea, Jose Azurmendik esaten zuen

bezala. Gertatu zena sinboloen bidez jasotzen saiatuko gara, ariketa bat gehiago izango da bide horretan», azaldu digu Josu Txapartegi Txapasek, ikuskizuna antolatzen da-

biltzan eta bertan parte hartuko duten ehundik gora herriarretako batek.

«Bildu gara dantzariak, bertsolariak, musikariak, poetak, antzerkilariak... Txikiren bizitza, modu ibiltari batean, azaltzeko. Bere haurtzaroko bizipenak, 9 urterekin nola etorri zen Zarautzera; plastiko fabrika batean lanean nola hasi zen; mendizaletasuna; Burgozko epaiketa nola bizi izan zuen; nola sartu zen ETAn; nola segituan harrapatu zuten Bartzelonan; eta nola handik urtebetera hil egin zuten. 21 urteko gazte baten bizitza. Internazionalismoa esan ohi da askotan, bada, hauxe zen benetako internazionalista, gure herrian jaio ez arren gure herriaren alde bizitza eman zuena. Ordu eta erdi inguruan hori dena azaltzen saiatuko gara», gehitu du Txapasek, jendeari Zarautzera gerturatzeko deia eginez.

EGAÑATARREKIN FUTBOLEAN

Uxue Alkorta eta Andoni Egaña bertsolariak dira ikuskizunean parte hartuko duten herriko beste bi kultur gile, eta hirukotea mahaiaren bueltan eseri dugu, 50. urteurren honetan belaunaldi desberdinekin herri memoriaz eta transmisioaz hausnartzeko.

«Ez naiz Txapasen belaunaldikoa, baina ni ere jada hobea nago transmititzen hasteko beste ezertarako baino», dio umorez 1961ean jaioa den Egañak. «Txiki hil zutenean bost egun falta zitzaizkidan 14 urte egiteko. Oso bizirik daukat oroitzapena. Nola bizi izan nuen, nola ezagutu nuen Txiki. Bi portale desberdinetan, baina bloke berean bizi ginen. Nire oroitzapena da 12 urterekin, Azken Portura bizitzera joan ginenean, bai gu eta bai

Uxue Alkorta, Andoni Egaña eta Josu Txapartegi Zarauzko Musika Plazan, Txiki eta Otaegiren oroimenezko olana atzean dutela.

Andoni CANELLADA | FOKU

haiek futbolearen aritzen ginela bazkalondoan, gu ikastolara eta bera lanera joan aurretik. Hantxe geratzen zen gurekin baloiari ostiko batzuk ematen, garajeko atea porteriatzat genuela. Bera eta bere anaia bat, Kepa zela uste dut, ni eta nire anaiaren kontra, bi biren aurka, 10 minutuko partidak».

Eta gertutasun horregatik, oso ongi gogoratzen ditu 1975eko gertakariak. «Emozionalki oso gogoan dut garai hura, oso gogoan dut larunbat goiz hartan aita nola etorri zen eta esan zidan ‘hil ditek’. Gogoan dut arratsalde hartan manifestazioa egin genuela. Nik 13 urte nituen, 14 egin gabe. Orain ikusten dut 13 urteko norbait eta ume ikusten dut, baina gu han genbiltzan manifestazioan. Eta lehenengo aldiz nire oroimenean gogoratzen naiz autoak gurutzatu beharrean irauli egin genituela. Baina ez edozein auto, Euro-mar parean zeudenak. Han diskoteka bat zegoen, eta larunbat arratsalde hartan dantzalekura joan zirenek ez zuten besterik merezi. Oroitzapen horiek betirako geratzen dira».

Hamabost urte lehenago jaioa da Txapas, 1946an, eta denborarekin oroitzapenak lausotzen joaten direla dio, baina garai haietako egonezina atzo balitz bezala gogoratzen du. «Gure andreak asko ezagutzen zuen Txiki, bere etxean asko ibiltzen zen. Nire oroitzapena da goiz hura bizitza guztian gogoratuko dugun goiz bat izan zela. Herritar bat horrela hiltzen zutela. 50 urtean memoria asko lausotzen da, baina gogoratzen naiz hurrengo urteetan ere sa-beleko minarekin, ezinegon batekin esnatzen nintzela. Urte askoan ezin izan genuen asimilatu gertatu zena. Gerora,

«Hemen dilema etiko-moral bat dago azpian. Zer egin behar da diktadura baten aurrean? Pertsona batek zer jokaera izan behar du diktadura batean?», hausnartu du Txapasek

«Irakaspen garrantzitsuenetako bat etorkinak, kasu honetan Txiki eta bere familia, onartzea eta mirestea izan zen. Ikasi genuen inori ez geniola ‘koreano’ deitu behar», dio Andonik

urteekin, hori ere pasa egiten da, baina beti gogoratzen naiz data gerturatzen denean».

Andonik gehitzen duenez, Txikiren kasuan prozesua oso azkarra izan zen, eta horrek ere areagotu zuen euskal jendartearentzat suposatu zuen kolpea. «Aurretik manifestazio handi bat egin zen, abuztuaren amaieran izango zen. Hondartzan tiroka amaitu zen. Atxilotu pila bat izan ziren, jendea uretara sartu zelako eta Guardia Zibilak ur-ertzean jarri zirelako. Ni gogoratzen naiz guk nola egin ge-

nuen ospa, eta nora. Kuadrillako azkarren batek esan zuen ‘kendu nikiya’ turisten artean disimulatzeke, eta korrika ikastolara joan ginen ezkutatzera. Hantxe egon ginen ordu pila bat eta iluntzean iritsi ginen etxera nolabait. Baina esango nuke manifa hura *Tupa* (Jose Antonio Garmendia) eta horien alde izan zela. Txiki oso azken orduan auzipetu zuten. Atxilotu eta hil arte bi hilabete eskas pasatuko ziren. Oso kolpera etorri zen bola handi bat izan zen. Gainera, garai hartan ostiral arratsaldeetan egiten zuten frankistek *‘Consejo de Ministros’* deitzen zutena, eta espero genuen heriotza zigorra kommutatzea, tartean Vatikanoa-eta sartu zirelako. Kolpe handia izan zen, oso bat-batekoa».

TRANSMISIOA, NON ETA NOLA?

Igandeko ikuskizunaren –eta Euskal Herriaren luze-zabalean egingo diren beste hainbat ekitaldiren– helburua transmisioa

baldin bada, gaur egungo gazteen iritzia ezagutzea ere interesgarria eta beharrezkoa da. Uxue Alkorta 2001ean jaioa da, 1975eko gertakariak bertatik bertara ezagutu ez zituzten belaunaldi berrien ahots.

«Etxean beti entzun dudan zerbait da. Aita Azken Portuko da eta txikitatik naturaltasun osoz hitz egin izan dugu gai honetaz. Baina bai uste dut 50. urteurren honen harira zabalpen handiagoa eman dela, gure belaunaldiak ere jakin dezan zer gertatu zen. Uste dut garrantzitsua dela belaunaldi honetako jendeak jakitea zer gertakari izan diren herri honetan, herri honen historia osatzen jarraitzeko. Memoria historikoa ez bada behar bezala lantzen, gertaera batzuk ahazteko arriskua dagoelako», iritziz dio Uxuek.

«Horregatik iruditzen zait garrantzitsua igandeko ekitaldia, herri osoan oihartzuna izango duelako, sortzaile mor-do bat bilduko dituelako. Azkenean txikitan kontatzen dizute zerbait gertatutakoaz, baina adinean aurrera egin ahala zuk zeuk bilatu behar duzu informazioa errelatoa osatzeko. Eta horrelako urteurren eta ekitaldiek horretan lagundu dezakete, bestela agian ez diozulako behar besteko garrantzia emango. “Berria”-k atera duen dokumentala ikusi genuen aurrekoan, eta ama adibidez hunkitu egin zen, amona gogoratzen zuelako esanez ‘ez dute hilko, ez dute hilko’. Baina azkenean hil zuten, bai».

Uxueren hitzek argi uzten dute transmisioa etxe giroan edo herrigintzatik egin dela. Hezkuntza arautuan memoria gai hauek lantzea zail ikusten du hirukoteak. «Ikuspegi historikoa bakoitzak begiratzen du berari komeni zaion une-

Aurreko igandean egindako entseguko irudia. Torre Luzean gogoratuko dira pasarterik gogorrenak, fusilamendua kasu. ZARAUTZ 1975



tik. Nik uste orokortasun bate-
tik aztertu beharko dela gerta-
tutakoa, eta hasieratik bere lo-
gika bat jarraituz. Hori
etortzen denean, pentsatzen
dut Txiki bilakatuko dela bere
herriaren alde bizitza eman
zuen pertsona bat», hausnartu
du Txapasek.

Eta kontrapuntu moduan,
Egañak zer pentsatua ematen
duen pasadizoa kontatu digu.
«Txiki hil zutenean manifesta-
zioak egin ziren, baina gogora-
tzen naiz gorpua ekarri zute-
nean, hurrengo urtean, askoz
handiagoak izan zirela. Bada,
gu hurrengo urtean Manolo-
rekin (Urbietan) bidaia batera
joan ginen, Paris eta beste
zenbait leku bisitatuz. Bartze-
lona ere bai, eta gogoan dut
Txiki fusilatu zuten hilerria
joan ginela. Aurreko urtean
Erorien Haranera, eta urte bat
geroago Cerdanyolara. Mano-
loren kontuak, uda garaian 30
eguneko bidaia egin genuen.
Gogoratzen naiz gure arreba
jaio zenean ni Monakoko hon-
dartzan lo nengoelako. Eta
handik hiru egunera Cerdan-
yolan ginen. Zentzu horretan,
guk eduki genuen heziketa au-
rreratua izan zen».

ERRELATOAK, PLURALEAN

Hala ere, seguruenik, ez da jus-
tua eskolei eskatzea jendarte
bezala oraindik eztabaida sor-
tzen duten gaien inguruko
errelato bateratu bat. Ikusi bes-
terik ez daude urteurren honen
harira sortu diren ika-mikak:
Zarauzko kasuan, Udalak Txiki
eta Otaegi gogoratzeko Santa
Barbaran jarritako olana be-
rehala kentzea agindu zuen, eta
fusilamenduen inguruko era-
kusketari ez dio udal aretorik
utzi –azkenean gutxieneko
adierazpen bat sinatu dute EAJ,
EH Bildu eta PSEk–; testuingu-
ru orokorrako batean, sona-



tuak izan dira Alberto Alonso
Gogorako zuzendariaren adie-
razpenak, esanez Txiki eta
Otaegik ez zutela askatasuna-
ren alde egiten borroka eta
frankismoaren tresna berdinak
erabiltzen zituztela.

«Biktima edonor izan daiteke
–dio Txapasek egunotan zabal-
du den biktima-biktimario ez-
tabaidaz–, hor garrantzitsuena
da ulertzea zer gertatu zen eta
zergatik. Garrantzitsua da esa-
tea Txiki Euskal Herriaren as-
katasunaren alde ari zela. Ez
gaude prest oraindik gure ar-
tean adostasun oso batera iris-
teko. Txikiren garaia hartuta
agian bai, ETak gerora izan
duen ibilbidea alde batera utzi-
ta. Hor agian irits gintezke

**«Gogoratu behar da nolakoa zen duela 50
urteko Zarautz. Pentsatzen dut Txikiren amak
eta anai-arrebek zer beldur pasa behar zuten
Zarautz ilun hartan», aipatu du Andonik**

**«Horrelako jendetza batuko duen ekimen batek
erakusten du herria bere egunerokoan, bertan
bilduko garen diziplina desberdinetatik,
eragiten ari dela», nabarmendu du Uxuek**

Gazte batzuk ikuskizunaren
afixarekin, aurkezpen
ekitaldian ateratako
argazkian.
ZARAUTZ 1975

adostasun batera. Azken ba-
tean PSOEkoak ere hortxe ibil-
tzen ziren, polimiliak adibidez.
Baina gerora gertatu den guz-
tiaren ikuspegitik begiratu
nahi bada, orduan ez dut posi-
ble ikusten. Nik uste Txikiren
garaia eta testuingurua hartu
behar dela kontuan, eta hor
oso garrantzitsua da esatea Tx-
iki zeren alde ari zen borrokan».

Andonik ere antzeko irakur-
keta egiten du: «Errelato bakar
bat zail ikusten dut nik ere, bai-
na uste dut gai garela garaian
garaikoa hartu eta ikusteko
Txiki zergatik hil zuten. Helbu-
ru jakin baten alde ari zelako.
Gero, ETaren historia osoa az-
tertu nahi badugu, Txikiren au-
rretik bazuelako ibilbide bat eta
gerora ere asko luzatu zelako,
bakoitza erori da San Pablaren
zalditik erori den garaian, eta
bakoitzak jartzen du zilegitasu-
na bera erori zen momentuan.
Batzuk 81ean jarriko dute, bes-
teek 87an, 2001ean, 2011n... eta
abar. Kasu honetan 50 urte iga-
ro dira. Koka gaitzezen garai
hartan eta konta dezagun or-
duan gertatu zena. Bestelako
konplexurik gabe. Horixe baita,

bakoitzak bereari eutsi nahia.
Txikik alde egin zuenean, 1973
inguruan, hemen gizarte jakin
bat utzi zuen; hil zutenean,
1975ean, apur bat aldatuko zen;
eta 1978-79ra joaten bagara, ja-
da oso desberdina zen. 1973an
nork altxatzen zuen hemen bu-
rua? Ia inork ez; 1975ean ere gu-
txik; eta 1977an Txikiren kideak
amnistiatuta itzuli zirenean,
erradikalagoa zen gizartea be-
raiek baino. Beraz, gogoratu de-
zagun hori ere: inork gutxik
burua altxatzen zuen garaian
burua asko altxatzera ausartu
zen norbait izan zen Txiki».

Eta Uxuek, adostasunak lor-
tzeko zailtasun horien aurrean,
herriak eman duen erantzuna
goraipatu nahi izan du. «Alder-
dietatik haratago, herriaren
erantzun bat ere egon dela na-
barmendu behar da. Santa Bar-
baran jarritako olana kendu zu-
tenean, herrian berehala
zabaldutako olana berreskura-
tuko zela eta Azken Portun za-
balduko zela. Herritarren ar-
tean ordu erdiko tarte eskasean
zabaldutako asmo hori eta jen-
de asko batu zen ekitaldi horre-
tara, ia une batetik bestera. Ho-
rrek erakusten du gertatu
zenaren ikuspegia eta errelatoa
konpartitzen duen jende asko
dagoela herrian, eta hori ere
nabarmenezkoa da».

Hain zuzen ere, eta hirukote-
ko gazteenaren hitzekin amai-
tzeko, biharko ikuskizunak ho-
rretan ere lagundu dezake.
«Hunkigarria izango da, eta
etorkizunera begira horrek bul-
tzada bat suposatuko du. Esan
dugun bezala dena ez da nega-
tiboa. Herrian horrelako jende-
tza batuko duen ekimen batek
erakusten du herria bere egu-
nerokoan, bertan bilduko ga-
ren hainbat diziplina desberdi-
netatik, eragiten ari dela. Ho-
rretarako ere balioko du
igandekoak».

«TXIKIREN ALDEKO HILETAK HAREN GORPURIK GABE EGIN BEHAR IZAN ZITUZTEN PAREDESTARREK»

«‘1975’ memoria ariketa multi-diziplinar bat da, banako eta kultur elkarte ugariren parte-hartzerik gabe ez litzatekeena posible izango. Duela 50 urteko Zarautz eta Txiki bera zuzenean ezagutu zutenen testigantzak eta material historiografikoa kontuan hartuta eraiki da. Txiki da hari nagusia, baina ez da Txikiri –eta Zarautzi– buruz bakarrik. Ikuskizun xumea da, eta dinamikoa, Txiki bera zen bezalakoxea».

Halaxe aurkeztu digu biharko ikuskizuna sortze prozesuan parte hartu duen Amagoia Gurrutxaga kazetariak. 1971n Matxinbentan sortua eta gerora Zarautzen kokatua, lan handia egin du memoria historikoaren arloan. Hamaika elkarrizketa eta erreportajeren artean, “Zarauzko postalak. 36ko Gerra Zarautzen” eta “Zarauzko gutunak. 36ko Gerra Zarautzen” liburuen egilea da.

Gurrutxagaren ustez, Txiki eta Otaegiren bizitza eta heriotza

ulertzeko ezinbestekoa da testuingurua ongi kokatzea. «Diktadura urteetan, nazional-katolizismoarekin lerratzen ez zen oro zapaldua zen. Oinarrizko eskubideak eta bermeak errespetatzen ez zituzten legedien, indar armatuen eta auzitegien bitartez finkatzen zuen zapalketa hori frankismoak. Horren aurrean, jendea antolatzen eta ekiten hasi zen; 1960ko azken urteetan bizkortu zen bereziki mugimendu antifrankista hori hemen, nazio eta langile aldarrikapenak ardatz zirela. Garai hura larrialdi egoera etengabeak markatu zuen. Sarekada eta tortura indiskriminatuak ohikoak ziren. ‘Itziarren semea’ kantu ezaguna Guardia Zibilaren Zarauzko etxean txikitu zuten Andoni Arrizabalagari eskainia da, esaterako».

Burgosko Prozesuaren barruan, 1970eko abenduan eman zen ezagutzera sei heriotza zigor ezartzen zituen epaia –kaleko eta nazioarteko presioen ondorioz gauzatuko ez zena–, 1974ko martxoaren 2an garrotez exekutatu zuten Bartzelonan Salvador Puig Antich anarkista katalana... «Txiki, Otaegi eta FRAPEko hiru ekintzaileri egokitu zitzaaien hurrengo heriotza zigor ‘zentsagarri’ sorta. Defentsarako aukerarik eman gabe epaitu zituzten. Aldez aurretik idatzia zegoen beren aurkako epaia», nabarmendu du Gurrutxagak.

Eta nola bizi izan zen hori dena Zarautzen eta Azpeitian? Argi dago une oso gogorrak izan zirela bi familientzat, baina jendearen babesa ere azpimarratu du Amagoiak. «Francoren indar armatuak saiatu ziren, baina ez zuten lortu Otaegiri azken agurra ematera Nuarbeko hilerrira joan zen jendetza geldiaraztea. Txikiren aldeko hiletak, berriz, haren gorpurik gabe egin behar izan zituzten paredestarrek. Haiek ere jendetza izan zuten lagun parrokiarainoko ibilaldi isilean, hamaika polizia armaturen zaintzapean».

Euskal Herri mailan zein nazioartean izan zen erreakzioa ere aipagarria da. «Txikiren eta Otaegiren exekuzioek

–eta egun eta ordu berean fusilatu zituzten FRAPEko hiru kideenak– astindu handia eragin zuten. Euren jaioterrietan bakarrik ez: manifestazioak, grebak, askotariko protestak egin zituzten Euskal Herri osoan zein atzerrian. Herritar anonimoen elkartasuna paredestarren eta otaegitarren babes eta ukendu bilakatu zen. Txiki eta Otaegi borroka antifrankistaren ikur bihurtu ziren. Bi arketipo ordezkatzan zituzten: landa eremuko euskaldunarena betetzen zuen Otaegik; bere sustraiei uko egin gabe bertakotu zen etorkinarena Txikik. Haien exekuzioak askoren kontzientzia-hartze politikoaren eta sozialaren ernamuina izan ziren».

Eta memoria eraikitzeko bidean, Gurrutxagak irmoki salatzen ditu erregimenaren haustura ezak ekarri dituen zailtasun guztiak. «Ez da ahaztu behar Sekretu Ofizialen Lege bat indarrean dela 1978tik, frankismo garaiko (eta osteko) estatuaren giza eskubide urraketa larrien ikerketa oztopatzen duena. Egia, justizia eta erreparazio ahaleginak zertan uzten ditu halako lege batek? Otaegiren aurkako auzibideen sumarioa ‘desagertua’ dago ofizialki, adibidez, 50 urteren buruan. Isiltasun tabua haustea erabaki zutenei esker ez balitz, ‘hemen ez zen ezer txarrik gertatu’ ozen esaten arituko lirateke asko eta asko. Bueno, ‘Francorekin hain gaizki ez ginen bizi’ esaten dutenak gero eta gehiago dira, eta horrek ere eman behar liguke zer pentsatua, indarrean dauden tabuak noren alde ari diren pentsatzeko... Frankistek eta beren onuradunek tabua elikatzen segitzea erraz entenditzen da, horri esker segitu dutelako gaur arte inori konturik eman beharrik izan gabe. Txikiren eta Otaegiren kasuetan ere, inork ez du konturik eman. Horrek ez dio kalterik egiten bake sozialari –ordenari, nahiago bada–, antza. Benetan kalte egiten diona, omen, estatuarengandik egia, justiziarik eta erreparaziorik jaso ez dutenen aurpegia erakustea eta Franco hil ostean hausturarik ez zela egon dioten erakusketak antolatzea da. Tristea da».

Amagoia Gurrutxagak lan handia egin du Zarauzko testigantza historikoak biltzen. «Zarauzko postalak. 36ko Gerra Zarautzen» eta «Zarauzko gutunak. 36ko Gerra Zarautzen» liburuen egilea da.

Aritz LOIOLA | FOKU



BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



OTAEGI FAMILIAREN FUNTSA



OTAEGI FAMILIAREN FUNTSA



PAREDES FAMILIAREN FUNTSA



LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOA



LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOA

GOGORATU, GOGORATU ETA MEMORIA ERAIKI


Une latzak izan ziren. Euskal Herria, eta mundua, oro har, zutik zeuden, Jon Paredes Manot, Anjel Otaegi Etxeberria, Jose Luis Sanchez Bravo Solla, Jose Humberto Baena Alonso eta Ramon Garcia Sanz exekutatu aurreko egun haietan. 50 urte igaro dira. 1975eko irailaren 26ko arratsan, manifestazio batek Donostia hiribidea zeharkatu zuen, eta 5.000 pertsona inguru bildu ziren bertan. Erregimeneko Poliziak indarrez ekin zion protestari, exekuzioen aurkako ahotsak isilarazten saiatuz. Hurrengo egunean, irailaren 27an, Euskal Herria greba orokorrean esnatu zen, hilabete hartan hirugarrena zen. Heriotza-zigorren eta frankismoaren aurkako manifestazioak gogor sentitu ziren kaleetan, lantegietan, milaka euskal herritarren eta Estatuko eta Europako beste lurralde batzuetakoengan. Baionan, manifestazio batek erdialdea zeharkatu zuen, "Franco Assassin" pankartarekin. Errepresioa, poliziaren indarkeria, sirenak, isiluneak eta manifestazioak nahasian, dolu eta erresistentzia egun ilun hartan. Gau haietan, euskal etxe askotan, isil-isilik egon ziren irratitari itsatsita, Europatik iristen ziren albisteak entzuten. Frankismoaren azken heriotza-zigorak izan ziren, baina baita errepresioaren eta odolaren artean iraungitzen zen erregimenaren ikurra ere.

Europa elkartasunez bete zen. Exekuzioen aurkako manifestazioak izan ziren Europako hiriburu nagusietan. Kaleak ahotsez, pankartaz eta kontzentrazioz bete ziren. Erroma, Geneva, Paris, Atenas, Lisboa, Stockholm, Berlin... guztietan, milaka pertsonak manifestazioa egin zuten exekuzioak gelditzeko eskatuz. Amsterdamen, Espainiako kontsulatuaren aurrean irailaren hasieran egindako gose-grebak Euskal Herriarekiko elkartasuna aldarrikatzen zuen. Nazioartearen presioa izugarria izan zen, baina erregimen frankistak aurrera egitea erabaki zuen. Aurkako ahotsek, Nazio Batuenak edo Vatikanoren kasu, exekuzioak gelditzeko nazioarteko presioarekin bat egin zuten.

Gaur, 50 urte geroago, gogoratzen jarraitzen dugu, eta gogoratzean, memoria eraikitzen. Anjel Otaegi Etxeberriaren eta Jon Paredes Manoten memoria grafikoa eta oroitzapenak gaur egunera arte iritsi dira haien familia eta lagunei esker. Txikiren kasuan, haien abokatuak izan ziren, Marc Palmes eta Magda Oranich senar-emazteak, Guardia Zibilak jaurtitako balen zorroak eta hildako Txikiren argazkia jaso zituztenak. Material horiek gaur egun Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren artxiboan gordetzen dira. Txikiren anaiaren argazki bat ere protagonista izan zen, haren atzeko partean Che Guevararen bertso bat idatzi baitzuen Txikik hil aurretik: «Bihar, ni hiltzen naizenean, ez egin negar nigatik. Ez naiz inoiz lurpean egongo, askatasun haizea naiz».



OTAEGI FAMILIAREN FUNTSA



PAREDES FAMILIAREN FUNTSA



LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOA

iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

LUR AZPIKO ABENTURAK



IBAITIK ITSASORA
PALESTINA AURRERA

20.000 haur

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Bonba, hilotz eta herri hautsiak Doraemonekin tartekatzen direnean, ez dakizu irudi horiek ezkutatu ala erakutsi, dagoe-neko ikusi baditu ere. Babestu nahi duzu, eta bertze aldera begiratzea ez da babestea, baina genozidio bat zuzenean jarraitzea ere ez. Azaldu ezina azaltzen saiatzen zara. Finean, marrazki bizidunetan ere badaude pertsonaia gaiztoak. Errealitatean ez dago salbatuko gaituen poltsiko magikorik, ordea.

Ibaitik Itsasora Palestinaren aldeko ibilaldia euri tanta bat izan da, eta itsasoa euri tantaz osatua dago. Partaide batzuk itxaropentsu zeuden, hazten eta indartzen ari diren herri mobilizazioek

gobernu eta enpresak mugituko dituztelakoan. Albiste katastrofikoak ikusita, bertze batzuk ezkorragoak ziren protesta-ekintzek duten eraginarekin. Batzuk eta bertzeak, denak han zeuden, ahal dena egiten, eta horrek berak bete ditu, hori eraman dute etxera. Palestinarrek zerbait jaso dute? Haiek errana da gure babesa iristen zaiela, eta ezinbestekoa zaiela gainera.

Euskal Herria Gazarekiko elkartasunean abangoardia izaten ari da munduan, gu ere herri zapaldua eta ukatua garenez. Irailaren 27a egun aproposa da hori oroitarazteko, 50 urte bete dira-eta Francoren azken fusilamenduetatik. Txiki eta Otaegiren oroimena bizirik da-

go, eta herri hau ere bai. Palestinan, ordea, 65.300 pertsonatik gora hil ditu Israelek 23 hilabeteen, horietatik 20.000 haurrak. Orduero ume bat baino gehiago hiltzen ari da, Save The Childrenek ohartarazi duenez. Gazako haurren populazioaren %2 inguru da hori. Bertze 21.000 ume betirako ezindu dituzte, 42.011 zauritu, eta bost urtetik beherako 132.000 haur hiltzeko arriskuan daude goseteagatik.

Hau gelditzeko zerbait egiteko gai izan eta egiten ez dutenak konplizeak dira, eta sarraskiak eragina izanen du, etorriko da buelta, etorriko zaigu buelta Europara ere. Gure haurrak ere badira. Ezin gara konplize izan. •

Orgasmoa

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Orgasmoa kafe likorea, amarettoa eta Baileysarekin prestatzen den koktela da, edo Peche-muxika + Kas-li-moia, edo, egia esan, bakoitzak nahi duen bezala prestatzen du bere orgasmo-koktela, baina, pentsatuko duzuen moduan, ez naiz etorri hona edariaz hitz egitera...

Orgasmoa edarietan gustagarria izango da askorentzat, baina sexuan helburu gorena da gehienontzat eta agian horrexegatik saiakeran ibilitakoez kontatzen dira hainbeste gezur.

Ez da egia guztiok eta nahi dugunean lortzen dugunik.

Ez da egia, harago, oso kaltegarria izan zen Freudek zabaldutako teoria,

besteak beste barneraketa bidez orgasmoa lortzean bilakatzen zela haurra emakume (galde Marie Bonaparteri...).

Ez da egia soilik barneraketarekin bai ala bai lor litekeenik emakume bikotearen orgasmoa (datuek diote %20 ere ez dela; irakur “El Secreto de las mujeres. Claves científicas de la sexualidad femenina”, Elisa Brune, Yves Ferroul). Beste kontu bat da mugimenduan klitoria igurzten bada...

Egia da badela orgasmorik ezagutu gabe hilobiraturik. Gajoa. Gizajoa.

Egia da, alabaina, esanak esan, ipuinak ipuin, zora(e)garria dela: zoramenera zaramatzana, gorputza, oinetatik bururaino, bizkar bihurritutako izerdi gozotan, tximista ziztadek zeharkatuz,

dar-dar kontrolaezinean... eta segidan egarria sortzen duena berriro zoratzeko.

Egia da sexuan orgasmoa zerua ukitzea dela. Nork bere zerua.

Egia da bikotearen azal leunean galtzea, bizkar blaitua zubia bailitzan tenkatzea eta gerriaren dantza hipnotikoan horditurik arnasa taupadaren aieneka gero eta biziago begietara begira sentitzea zeruan eldarnio erogarrian hegan egitea dela.

Bada, horiek biak elkar batzea, hori bai, hori gaindiezina da.

Egiarik egiena da bakoitzak bere era sentitzen dituela orgasmoak, orgasmoetarik bakoitza, eta izan bitez anitzak eta ugariak, ederrak guztiak, baina izan bitez. •



Ixone BADIOLA LEKUE, Naiara ARRIOLA GARICANO eta Gabriel RODRIGUEZ SAN JUAN
EHUko Psikologia Fakultateko irakasle eta ikertzaileak

Inhibizio Latentea: testigantzetarako banakako arreta, faktore garrantzitsua



Lekuko batek aurrez ikusitako edota bizitako gertaera edo gertaerei buruz egiten duen oroimen-kontakizunari testigantza deritzo. Testigantzaren

zehaztasuna gertaeraren ezaugarrien, informazioa jasotzen duen sistema-ren baldintzen eta lekukoaren ezaugarri pertsonalen menpe dago. Horrez gain, testigantza oroimenarekin eta subjektuak informazioa jasotzeko, biltegitratzeko eta errekuiperatzeko erabiliko dituen estrategia kognitiboekin erlazionatuta dago ezinbestean. Hau dela eta, sakonki aztertu da oroimenak, arretak eta pertzepzioak nola eragiten duten gertakari baten kontakizuna osatzeko. Faktore horiek eta beraien arteko elkarreraginak identifikatzea, testigantza zehatzagoak zer pertsonak eta zer baldintzatan eskaini ditzaketen ulertzea, funtsezkoa da. Banakako faktore hauen artean, Inhibizio Latentea (IL) arreta-fenomenoa gaitasun bezala aztertu da (Badiola-Lekue, 2024; Badiola-Lekue, et al., 2025).


ILk ahalbidetzen digu estimulu bat behin eta berriz ondorioz gabe agertzen denean estimulu horretatik arreta gutxitzea. Honek aukera ematen du gure ikasteko eta erantzuteko prozesamendu gaitasun mugatuak beste estimulu garrantzitsu batzuetarako erabiltzea. Hala, IL arretaren funtzionamendu egoki baten ondorioz sortutako fenomeno gisa ulertzen da, non garrantzirik ez duten estimuluei arretarik ez jartzen ikasten den, une eta egoera bakoitzera egokitzea ahalbidetuz eta biziraupena erraztuz. Bestalde, gaitasun hau ez dutenek, hau da, IL arindua ala murriztua duten banakakoek, garrantzirik gabeko informazioaren iragazte ezohikoa egingo lukete, eta ondorioz, beraien prozesa-

dore kognitiboetara garrantzitsua ez dela suposatzen den informazio gehiago helduko litzateke.

ILren gaitasuna lekukoaren oroimenaren esparruan aztertzeko, laborategiko testuinguru batean, testigantza ezberdinak aztertu dira (Badiola-Lekue, et al., 2024; 2025). Lekukoaren oroimenaren inguruko literaturan, besteak beste, testigantzaren kalitatea neurtzeko jasotako deskribapenean ematen diren xehetasunen maila kontuan hartzen da, xehetasunak zentral ala periferiko bezala kategorizatuz (Loftus, 1996). Xehetasun zentralak ekitaldiaren funtsezko elementuak dira; xehetasun periferikoak, berriz, bigarren mailako alderdiak edo garrantzi gutxiagokoak dira. Hainbat ikerketek erakutsi dute informazio zentrala informazio periferikoa baino hobeto gogoratzeko joera dagoela (Ibabe & Sporer, 2004; Flowe et al., 2015; Luna y Migueles, 2009; Wyler eta Oswald, 2016). Alde hori

arretaren ikuspegitik interpretatu da: garrantzitsuagoak direnez, alderdi zentralak arreta handiagoa jasotzen dute, eta, beraz, hobeto gogoratzen dira xehetasun periferikoak baino (Christianon, 1992; Easterbrook, 1959). Informazio unitate hauek kategorizatuz, testigantzetan IL arindua duten pertsonak, hau da, garrantzirik gabeko estimulu gehiagori arreta jartzeko joera dutenek, xehetasun periferiko gehiago adierazten dituztela behatu zen.

Hau horrela izanik, lekukoaren oroimenaren esparruan IL arindua, banakako ezaugarri bat bezala, baliagarria eta interesgarria izan daitekeela ondorioztatu dezakegu, xehetasun periferikoetan aberatsagoak diren testigantza aberatsek eta ezberdinek aurrean dezaketene faktore bat delako. Hori bereziki garrantzitsua izan liteke testuinguru judizialean, testigantzen zehaztasunak eta aberastasunak nabarmen eragiten baitute prozesu legeetan. •



ILk ahalbidetzen digu estimulu bat ondorioz gabe agertzen denean arreta gutxitzea.

GETTY

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Sarearen askatasun eza

O rain dela urte gutxi entzuten genuenean inori zer baitetaz hitz egiten aritu eta segidan egindako Interneteko bilaketetan hitz egindakoa erosteko eskaintza agertzen zitzaiola, zur eta lur gelditzen ginen gertaera izugarria zela koan eta ez genuen benetan hala zenik sinistu nahi izaten. Ba, tamalez, dagoeneko inor ez da horretaz harritzen, gero eta sarriago gertatzen delako. Baina hori ez da txarrena...

Interneteko aplikazioei begira pasatzen dugu eguneko zati handi bat, askotan denbora-pasa hutsean gainera, zertan ari garen ia ohartu gabe, inertzia. Ba, aldiz, aplikazio horiek guri begira daude une oro eta haiek ez daude denbora-pasan. Etengabe behatzen dute zer zabaltzen dugun, zeri ematen diogun arreta eta denbora, zeri eta nola erreakzionatzen diogun, norekin harremantzen garen, zer partekatzen dugun eta norekin... Hori guztia jaso, monitorizatu eta aztertzen dute, haien eta guri buruzko informazioa erosten duten guztien interesen arabera edukiaz gero guri mutur aurrean jartzeko.

Eta horrekin zer lortzen dute? Lehenik eta behin, gure informazio pertsonala den horrekin trafikatzeari argi eta gordin. Jakina da aplikazio eta sareetako edukia horiek guztiak eskura jartzen dizkigutela, trukean guk gero eta gehiago klikatu eta nabigatuta, gutaz informazio gehiago lortzeko: zaletasunak, filia eta fobiak, harremantzea, osasuna... guztia. Izan ere, ez dute ezer doan ematen: entretenitzen gaituzte –informatu ez nuke esango–, baina gu gara merkantzia, gu gara nahi ala ez salgai gaudenak. Zer erosi nahi dugun, nolako osasuna daukagun, zerk arduratzen gaituen, zer maite dugun, zer gorrotatu, nori emango geniokeen bozka... Eta informazio hori guztia –berez erabat pertsonala dena–, interes zehatzen arabera segmentatuta, bezero desberdinei saltzen diete: aseguru agentziei, osasungintza enpresa pribatuei... edozeini.

Horren bitartez lortzen dute, baita ere, gure pentsaera eta jokatzeko moldeetan eragitea. Adibidez, badira Afrika eta Asiako hainbat lurralde Freebasics izeneko programa baten bitartez bertako herritarrek ezer ordaindu gabe Internetera sarbidea eskaintzen dutenak. Sarbide horrek baimentzen die gaurkotasuk albisteak doan ikusi ahal izatea, baina bakarrik izenburuak, horien artean asko “amarillista” delakoak, eta baita faltsuak ere. Ordaindu ezean, ezin dute izenburuaren testuingururik eta azalpenik ikusi.

Herrialde horietako praktika muturrekoa bada ere, gurean ere *fake news* edo gezurrezko albiste eta

Aplikazio eta sare digitalek ez dute ezer doan ematen: entretenitzen gaituzte –informatu ez nuke esango–, baina gu gara merkantzia, gu gara salgai gaudenak

izenburuak eguneroko ogi ustela dira, etengabeak. Horrela, sinistarazten digute komunitate zehatz batzuk mota guztietako delitu ugari egiten dituztela, etorkinen eskubideen alde egitea hemengoen kontra egitea dela, emakumeek sufritzen duten jazarpena salatzeak kulparik ez daukaten gizonak erasotzen dituela, hiri eta herrietan bizi diren ezkertiarrek landaguneetako ekonomia suntsitzen dutela. Hala, korronte horren barnean, modan jartzen dabilta feminismoaren, etorkinen eta ezkerraren kontra egitea. Hori da, gaur egun, sistemaren kontrakoa izatea dela saltzen digutena.

Dinamika horietako beste pieza garrantzitsu bat da gizartean ahalik eta zatiketa gordinena eratzea: gu eta besteak, besteak eta gu. Gatazka itsaso horretan etekin handiagoa ateratzen dute: ekonomikoa, politikoa...

Emaiozue irakurraldi bat Marta Peirano-ren “El enemigo conoce el sistema” liburuari. •

«Gauza bat falta zaigu eta Adimen Artifizialaren erabilera hobetu lezake: kritiko izan behar dugu»

Usue Mori Carrascalek Gladys Saria jaso zuen atzo bere lantokian, EHUko Informatika Fakultatean, Donostian. Adimen Artifiziala jendartearen ongizatera bideratzeko eta ezagutza transferitzeko urratutako bidea nabarmendu zuen epaimahaiak. Egiten ari den lanaz, bereziki Ondare proiektuaz, mintzatu da GAUR8rekin fakultatean bertan, jende aunitzen zorion agurren artean.

Zorionak! Denon ahotan dabilen gai batengatik lortu duzu saria. Nola definituko zenuke Adimen Artifiziala?

Eskerrik asko! Esaten da makina batek adimen artifiziala daukala adimenarekin lotzen ditugun ezaugarri batzuk bertan ikusten ditugunean. Bi mota daude: lehena, AA orokorra, gizakiak egin dezakeen edozein gauza egin dezakeen makina da. Halakorik ez dago eta, nire ustez, oso urruti dago. Bigarrena, AA estua, ataza jakinak egiteko gai den makina da. Momentu honetan hori dugu. Makina horrek adimena erakusten duten ataza konkreituak ebazten ditu: plangintzak, iragarpenak, sailkapenak... Horretarako, datu eta adibide pila bat ikusten ditu eta, guk bezala, horietatik ikasten du.

AA ez da bakarrik guztion eskuetan dagoen ChatGPT; plangintza gaitasuna edo ikasketo gaitasuna erakusten duen edozein sistema da. Adibidez, irudiak automatikoki etiketatze baliatzen da, baita medikuntzan irudietatik diagnostik egiten laguntzeko ere. Ia

arlo guztietan txertatua dago. Berez ikerketa arlo nahiko zaharra da, baina orain txatbot hauekin gorakada handia izan du eta oso modu orokorrean gizarteratu da. Guk ChatGPT atera aurretik ikerketa egiten genuen.

Nondik dator AA?

Badaude publikoki finantzatutako eta beste toki batzuetatik ateratako ekimen batzuk, libreak, txikiagoak, gardenagoak. Baina denon eskura daudenak teknologia enpresa handietatik datoz. Beraiek dute halako gauza handiak egiteko ahalmena. Hori ez litzateke horrela izan behar, ze badauzka alde ilunak.

Nola eraikitzen da?

Sistema sortzen duenaren arabera ezaugarri ezberdinak izaten ditu. Batzuetan pentsatzen dugu AAk pertsona izaera daukala, baina algoritmo matematiko bat da, probabilitatea erabiltzen duena. Ez dauka emoziorik eta enpatiarik. Eta noski, akatsak egiten ditu, alborapenak dauzka. Hartzen dituen erabakien arrazoia jakitea oso zaila da. Badaude moduak gauzak hobeto egiten saiatzeko, algoritmo horiek egiten dituzten alborapenak saihesten ahaleginduz, ahalik eta gardenen izaten saiatuz, kode irekia izanez, zein datuarekin entrenatu duten jakinez, edozein motatako datuak ez erabiliz... Badaude gauzak sistemaren eraikuntza hobea izateko egin daitezkeenak, ez bakarrik emaitza aldetik, alde etiko eta humanotik ere bai.

Zertarako baliatzen da?

Berez gauza on askotarako bali daiteke. Azkenean makinek

duten gaitasuna da datu pila bat prozesatu ditzaketela, guk baino askoz gehiago. Beste gauza askotan ez dira gu baino hobeak, baina horretan bai. Medikuntzan txertoen formulak bilatzeko edo pazienteak monitorizatzeko erabiltzen da AA. Industrian, anomaliak automatikoki detektatzeko. Denon ahotan ibili diren suteak prebenitzeko edo kudeaketa eraginkorragoa egiteko ere badaude aplikazioak. Gauza one tarako erabil daiteke, baina ez da beti egiten. Nork egiten duen eta zein xede dituen begiratu behar da. Legedia berrien lana izan beharko litzateke hori kontrolatzea.

Europar oraintxe atera da legedia berria.

Lehen pauso bat da. Zenbait aplikazio debekatuta daude guztiz, eta arrisku handikoak diren edo gai sentikorrek tratatzen dituzten kasuetan exigentzia maila handiagoa daukate. Kasuak ateratzen hasten direnean ikusiko dugu zer gertatzen den.

Adimen Artifiziala jendartearen ongizatera bideratzea aitortu dizute Gladys Sarian.

AA oso erraz bideratzen da industriara eta nik ere urte asko neramatzan ikerketan industriako problemekin. Momentu batean aldaketa bat behar izan nuen eta hortik ateratzea erabaki nuen. Duela zenbait urte Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu batzuetan parte hartzen hasi nintzen, politika sozialetan dauzkan zerbitzuak hobeto ulertzeko, adibidez. Iritsi zen une bat konturatu ginen beste pauso bat eman nahi genuela. Proiektu berri bat eskatu genuen, orokorra-

USUE MORI CARRASCAL

GLADYS SARIAREN IRABAZLEA

Ibilbide zientifiko sendoa du Usue Morik, baina «eliteko» ikerketa eredutik aldendu, eta adimen artifiziala jendearen onurarako erabiltzea lehenetsi du. Hori aitortu diote atzo jaso zuen Gladys Sarian.

Maidar IANTZI GOIENETXE

goa, eta hala sortu genuen Ondare. Diziplina arteko sare bat eratu dugu. Aldaketa handi bat izan da proiektuan Filosofiako, Zuzenbideko, Hezkuntzako eta Soziologiako jendea sartzea. AA ikuspegi oso tekniko batetik egiten ohituta gauden, ez gara alderdi humanistiko guztian pentsatzen jartzen, eta berez bada gai bat hori dena behar duena. Noski behar duela gogoeta bat legediariburuz, hausnarketa filosofiko bat... Aurrerapauso handi bat izan da hori. Unibertsitatean ikerketa taldeetan lan egiten dugu, eta proiektu honen bereizgarri bat da talde ezberdinetako jendea elkartzea.

Formazioa ere ardatz duzue.

Gizartea eta arlo ezberdinetako profesionalak AAren inguruan formatu ditugu. Hitzaldiak eman ditugu, ikastaroak sortu Zuzenbideko jendearentzat, kurtso mistoak antolatu diziplina ezberdinetako jendearekin, Informatikako eta Filosofiako ikasleak nahastu ditugu... Arlo teknikitik eta akademiatik harago joaten saiatu gara.

Adimen Artifizialeko gradu-ko koordinatzailea zara. Egia da gazteak falta direla arlo honetan?

Graduko bigarren promozioa atara zen iaz. Taldea txikia da, 40 lagun dira guztira. Ez da sekulako jende masa, baina Informatika ikasten dutenek ere badute ezagutza Adimen Artifizialean. Hemen badago horretan lan egin dezakeen jendea. AArena lau urteko gradu bat da. Lehenengo urtean AA eta Informatika nahiko batera doaz, baina oso azkar banatzen dira ibilbideak. Nik dakidala ikasleak gustura daude. Bigarren eta laugarren mailan



Argazkiak: Gorka RUBIO / FOKU

IBILBIDEA

1987an Donostian jaioa, Matematikan lizentziatua, Usue Mori Carrascal EHUKo irakaslea eta Adimen Artifizialeko gradu-ko koordinatzailea da. Ikerketa akademikitik harago joan da, AA jendartearen beharretara egokitzeke asmoz.



ematen dut klasea, eta egia esan oso pozik.

Zein da jendarte digital hobe baterako bidea?

Gauza bat falta zaigu eta asko hobetu lezake erabilera: kritikoak izan behar dugu. Sentsazioa daukat erabiltzaile bezala iristen zaiguna hartzen dugula, nolakoa den eta nork eta zertarako sortu duen kuestionatu gabe. AArekin are esajeratuagoa da, jendeak gauza guztietarako erabiltzen duela ChatGPT. Jende askok honen ematen dion erantzuna onartzen du huts egitea ezinezkoa balitz bezala. Eta akats asko egiten ditu. Lehenengo baldintza kritikoak izatea eta ahalik eta formatuen egotea izango litzateke, zer erabiltzen ari garen jakiteko eta zer egin

dezakeen eta zer ez bereizteko. Txat baten gisako interfazea dauka eta horrek pertsona bat izango balitz bezala tratatzera eramane gaitzake, baina ez da pertsona bat. Ez du zentzurik ChatGPTri sentimenduei buruz galdetzeak. Ez du psikologoz bezala balio.

Adibidez, lagungarria izan daiteke testu bat berridazteko edo hobeto idazteko. Gure Informatikako ikasleek programatzeko erabiltzen dute eta erabili behar dute, hor dagoen tresna bat baita, ezin da deuseztatu. Baina hala esaten diegu: ‘Dena ChatGPTrekin egiten baduzue zertarako behar zaituztete zuek?’ AA batek berak bakarrik ez du programatzen pertsona batek bezala. Zertan ari den dakien pertsona bat behar da. AA erabil de-

zakezu laguntzeko, ataza batzuk azkarrago egiteko, gauza batzuk hobetzeko, baina ez hutsetik dena egiteko. Ulertzeko, ondo ala gaizki dagoen konturatzeko eta zuzendu beharrekoa zuzentzeko gai izan behar duzu. Ez naiz erabiltzearen aurkakoa, inolaz ere. Nik erabiltzen dut. Baina gauza batzuetarako baliatu behar da, eta zer den jakinda.

Nola funtzionatzen dute hala-ko sistemek?

Sinple esanda, esaldi bat emanda hurrengo hitza edo hitzak zeintzuk diren iragartzen dute, hitzen arteko erlazioen patroietan oinarrituta, ez hainbeste esanahietan. Batzuetan harrigarria da gauza batzuk hain ondo egitea jakinda nola funtzionatzen duen.

Egia da informazio pila bat prozesatu duela eta ikasketa prozesua egiteko algoritmo horiek boteretsuak direla. Patroi oso konplexuak aurkitzeko gai dira.

Zer suposatu zuen ChatGPTk?
ChatGPT atera zenean iraultza handia izan zen, ordura arte egiten zenarekin konparatuta salto izugarria izan zelako. Zientifikoki ere fakultatean honetan lan egiten dugunontzat ezustea izan zen, nahiz eta atzean dauden teknologiak ezagutzen genituen: ‘Benetan hau egin daiteke?’. Baina AArekin kontaktua lehenago hasi nuen. Tesia horretaz egin nuen. Ez ziren hizkuntzarekin erlazonatutako problemak, nik beste datu mota batekin lan egiten dut, denboran jasotako datu numerikoekin. Adibidez, eguraldiaren joera urteetan. Horietatik patroiak ateratzen, iragartzen eta sailkatzen saiatzen naiz.

Zertarako baliatzen duzu ChatGPT?

Ez dut pila bat erabiltzen. Tesuren bat idatzi behar badut hizkuntza pixka bat moldatzeko erabiltzen dut. Gehienbat Matematikako ikasgaiak ematen ditut eta ariketak prestatzeko lagungarri zait. Ematen didana ebaluatzeko formazioa izanda, ariketa baten bariantak sortzeko erabilgarria da. Programatzerakoan ere, lengoia batean egiten ohitua banago eta beste lengoia bateko kode bat ulertu behar badut, ChatGPTri sartu eta berak azaltzen dit.

Zein Adimen Artifizial eredu erabiltzen dituzu?

Eredu pila bat daude eta bakoitzak problema ezberdinak ebazteko eta datu ezberdine-



kin lan egiteko balio du. Gaur egun *deep-learning* deitzen diren ereduak dira gehien erabiltzen direnak, sare neuronal formakoak. Eredu horietan zure datuak zenbakien bitartez adierazten dituzu. Horiek sarean sartzen dira, eta hor barruan operazio matematiko pila egiten dira. Imajinatu sailkapen bat. Txakurren eta katuen irudiak ditugu eta irudiak bata ala bestea diren jakin nahi dugu. Irudi bakoitza sarean sartu, kodifikatu, operazio matematiko pila bat egin, eta irteeran txakurra ala katua aterako litzaiguke. Ere-

«Txat baten gisako interfazea dauka eta horrek pertsona bat izango balitz bezala tratatzera eraman gaitzake, baina ez da pertsona bat. Ez du zentzurik ChatGPTri sentimenduei buruz galdetzeak. Ez du psikologo bezala balio»

duek entrenamendu fase bat daukate non irudiak sartzen ditugun eta irteera benetako irudiarekin konparatzen dugun. Hor sortzen den errorea kontuan hartuta eredu barruan dauden eragiketa horiek pixka bat egokituko ditugu errorea txikiagoa izateko. Hori da prozesua.
Sare bat edozeinek egin dezake, gauza da teknologia handiek arkitektura zehatz batzuk dauzkatela ez dakizunak nola osatuak dauden. ChatGPTren eredu pribatua da. Beste eredu bat eraiki dezakegu antzeko atazak egiteko; halako sare

bat entrenatu ahal izateko ahalmen handia behar da, ordea. Fakultatean Latxa eredu egin dute, euskarazko testuak erabiltzen dituen.

Nola ari da eragiten AA gure bizitzetan? Eta nola eragingo du etorkizunean?

Eragiten du, ze erabiltzen ditugun aplikazio eta gauza askotan txertatua dago, batzuetan ez konturatu arren. Nola eragiten duen? Badaude aplikazio on batzuk, eta medikuntzan eta beste zenbait arlotan aurrerapenak ekarriko ditu. Bestalde, gauza txarrak ere ekarriko ditu. Adibidez, nahiko modan dago Israelek erabili duen Lavender sistema, zeini eraso egin aukeratzeko. Gauza txarretarako erabil daiteke, noski. Gizakiok egingo bagenu ez dakit askoz hobeto egingo genukeen, baina arazo etiko nabarmenak daude hor. Modu gertukoagoan, gure eguneroan, batzuetan erabili behar ez dugunerako erabiltzen dugu AA. Atera dira kasuak psikologo bezala erabili duen jendearenak. Bikote bezala ere tratatu dute halako txatbot bat. Halako arazoak ekarriko ditu. Guk hezkuntzan kopia-tzearen arazoa daukagu. Gizartea prestatu eta aldatu beharko da halako gauzei aurre egiteko.

Zein da honen guztiaren kostua, ekonomikoa eta ingurumenean duena?

Aipatu ditugun eredu horiek oso ahaltsuak dira zenbait gauza egiteko, baina beren entrenamendua oso garestia da konputazionalki. Horrek esan nahi du ordenagailu askok aritu behar dutela aldi berean lanean hilabeteetan. Oso kontsumo altua daukate. Bestalde, eredu horiek datuetatik elika-

tzen dira. Batez ere Internetekoetatik. Datu horiek guztiak biltzeak ere kostu izugarria dauka. AAK daukan kostua eta ingurugiroan daukan eragina ukaezina da. Ataza berdinak ebazteko eredu txikiagoak erabiltzen saiatzen ari dira, baina kostua altua da oraindik.

Pribatutasuna urratzeko arriskua du AAK?

ChatGPTn idazten dituzun gauza guztiak ereduaren entrenatzeko berrerabiltzen dituzte. Batzuetan galdetzen du: ‘Gustatu zaizu eman dizudan erantzuna?’. Horretaz kontziente izan beharko genuke. Arazoa ez dira hainbeste zure datu partikularrak. Enpresa horiei ez zaie axola zutaz jakitea, baina jende guztiaren datuekin patroiak atera ditzakete. Gizarte osoaren informazio orokorra dute eta hori bai da tentsioa, ez dakigulako informazio hori zeinek duen eta zertarako erabiliko duen.

Praktika on batzuk gomendatuko zenituzke?

Gaur egun egoera dagoen moduan oso zaila da hortik ateratzea eta, adibidez, Google ez erabiltzea. Nik erabiltzen dut, baina gutxienez kontziente naiz ez dela debalde; produktua ni naiz. Alternatiba garden eta libreagoak ateratzen badira, horietara joko dut. Badaude batzuk, baina ez publiko orokorrak hain erraz erabiltzekoak.

Nola irudikatzen duzu etorkizun hurbila?

Adimen Artifiziala gero eta gehiago txertatuko da gauza guztietan eta poliki-poliki moldatzen joan beharko dugu. Hezkuntzan, adibidez, gogoeta sakon bat egin beharko dugu, eta egiteko moduak teknolo-

«AA ikuspegi oso tekniko batetik egiten ohituta gaude, eta berez bada gai bat alderdi humanistikoa behar duena. Noski behar duela gogoeta bat legediari buruz, hausnarketa filosofiko bat... Aurrerapauso handi bat izan da hori»

gia honen existentziara egokitu. Kritikoak bagara eta etorriko denaz kontziente bagara, egokitzen saiatuko gara. Egoera datorren bezala hartzen badugu, ostera, gainera etorriko zaigu.

Ondareri jarraipena emanen diozue?

Proiektua abenduan bukatuko da eta hemendik aurrera zein forma eman aztertzen ari gara. Ideia ezberdinak ditugu; unibertsitate-gizarte gela bat sortzea, adibidez. Oraintxe hortxe gaude. Dauzkagun proiektuekin segituko dugu eta, orain arte bezala bada, gauza berriak

aterako dira denbora osoan. Hasi ginenetik hala izan da etengabe, guri gauza pila bat bururatzen zaizkigulako eta oso erantzun ona lortu dugulako jendearengandik. Ekintza batetik beste bat ateratzen da. Formakuntzako gauza dezente dauzkagu eta generoari eta Adimen Artifizialari buruzkoak ere bai.

Fakultatean emakume ikasleen talde bat sortu dugu, Hack Morea. Eskoletara bidaltzen ditugu praktikak egitera eta generoa lantzeraz. Ondare barruan talde bat sortu dugu generoan lan egiteko eta proiektu dezente dauzkagu il-

do horretan. Hack Moreaz gain, Zarauzko Emakumeen Etxean hitzaldiak emango ditugu abenduan. Ideia da hitzaldi hori beste toki batzuetan egitea. Bi saio izango dira: Zer da Adimen Artifiziala? Eta zein alborapen ditu? Publiko orokorrarentzat izango da. Material idatzia ere prestatzen ari gara gaiari buruz. Indartsu dago generoaren arloa Ondaren. Emakume pila bat gara taldean, eta hori Informatikan oso arraroa da. Ikerketa talde ezberdinetakoak elkartu gara eta emakume asko gaude. Bada gai bat kezkatzen gaituena eta dezente lantzen ari gara.



AIARALDEKO KRISIAREN ARRAZOIAK, BOST AHOTSETARA

Nerea GOTI

Kaleratzeen mehatxuak eta enpresen itxierak Aiaraldeko kronikaren eguneroko bilakatu dira. Baina zer dago errealitate horren atzean? Bost ahots bildu ditu GAUR8k eta diagnostikoan bat datoz denak, Diputazioa izan ezik. Haren ustez, lan gatazkek ez dute laguntzen.

Lipmesa, Valvospain, Glavista, Guardian... Azken urteetan hainbat enpresa itxiera izan dira Aiaraldean, ehunka lanposturen suntsiketa eraginez; Tubacexen kasua begi bistatik galdu gabe, lan gatazka luze batek buelta eman baitzion zuzendaritzak egin asmo zituen 129 kalera-
tzeei. Orain, Maderas de Llodio iragarri duen kaleratze kolektiboak (39 lanpostu) argi gorriak piztu ditu berriz Aiaraldean. Industria sektorea dago tantaka gertatzen ari den enplegu galera horien erdigunean, eta azken kasu honetan, gainera, orain arte krisi zantzurik izan ez duen jarduera bati –egurrezko xafla kontratxapatuak egiten dituzte– eragiten dio. Are gehiago, Guardianen gertatu zen moduan, Garnika taldeko Maderas de Llodion lan hitzarmena negoziatzen jesarrita egon ziren langileen ordezkariak zuzendaritzarekin, kaleratzeak iragarri baino hilabete bakan batzuk lehenago.

Enpresen itxiera segida horren atzean dauden arrazoez eta eskualdeak bizi duen egoeraz galdetu die GAUR8k eskualdeko eragile ezberdinei: gehien-goia duten ELA eta LAB sindikatuei, SOS Aiaraldea herri plataformari eta herritarrengandik gertuen dauden erakundeei: Laudioko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari.

Arabako Foru Aldundia kenduta, errorrik ezagutzen ez duten eta interes ekonomikoak ikur dituzten multinazionalen ereduak jotzen dute kausa nagusitzat eragile guztiek. Eskualdeko egoerari begiratzean, Saray Zarate Fernandez de Landaren gidaritzapean dagoen sailaren hitzetan, «joera handi bat dago» diskurtsoa alde negatiboetan zentratzeko, albiste onak lausotuz, baina «Aiaraldea izan da eta

jarraitzen du Arabako industriaren motorretako bat» izaten.

Ez dira iritzi berekoak SOS Aiaraldea plataforman. Egoera kezagarritzat jotzen dute industrian eta beste hainbat arlotan, besteak beste, zerbitzu publikoetan, eta «kasualitatea» ez dela gaineratzen dute. Adierazi dutenez, «Aiaraldean egoera kritikoa bizitzen ari gara. Urte gutxiren buruan, eskualdearen motorra ziren hainbat enpresa itxi dira. Gogora dezagun duela hamarkada eskas batetik hona itxierak bereziki gogorrak izan direla eskualdearentzat: Lipmesak 150 langile, Valvospainek 79, Glavistak 240 eta aurten bertan Guardian Laudio 171 langile kaleratu ditu, besteak beste. Orain, Maderas de Llodio ere 39 lagunek kaleratze kolektiboak proposatu du. Benetako odoluste bat da: ehunka pertsona kalera, ehunka familia ziurgabetasunean eta gero eta bizi gutxiago duten herriak, bata bestearen atzetik ixten duten komertzio txikiak direla medio».

Parte hartze irekikoa, norbanakoek eta beste mugimendu batzuetako eragileek osatzen dute eskualdeko plataforma. Azken urteetan, lanpostuen defentsan aritu da plataforma, sortu den lan gatazka bakoitzean, eta beste hainbat arlotara zabaldu du aktibismoa, etxebizitzaren aferaren, zaintzen sistema publikoaren edota kalitatezko osasun arretaren alde.

Herri dinamikan berretsi dute «gertatzen dena ez dela casualitatea». «Multinazional handiei eta inbertsio-funtsei dagoeneko interesatzen ez zaienean sartu, estutu eta alde egiteko aukera ematen dien eredu ekonomiko bat dago. Ez dute begiratzen Aiaraldeko eskualdearen etorkizunaren eta pertsonen alde, haien poltsiko eta berehalako onuraren alde baizik», azpimarratu dute. Beste ideia bat gaineratu dute: kaleratze bakoitzaren atzean drama pertsonal eta familiar bat dago, baina horren ondoan, «enplegu egonkorrik gabe eta gazteentzako aukerarik gabe uzten» den eskualde bat dago, «ahuldu egiten da eta jendeak alde egin behar izaten du. Are gehiago, bizi proiektuak merkantilizatzen diren ho-



Maderas de Llodio enpresako langileen mobilizazioa, Laudio. Lantegiaren jabegoa duen Garnika taldeak 39 langile kanporatu nahi ditu. Ondoko orrialdean, SOS Aiaraldea herri plataformaren protesta bat.

Aritz LOIOLA - Jaizki FONTANEDA | FOKU



Greba mugagabeari ekin diote Maderas de Llodion. Kaleratzeak justifikatzen dituen ekoizpen edo antolaketa arrazoirik ez dagoela diote: «Onura ekonomikora bideratutako erabakia da, giza kostua kontuan hartu gabe»

Enpresa batzordeak ohartarazi du kaleratzeen ostean itxiera hel daitekeela: «Enpresak iragarri du produkzioaren %40 beste lantegi batzuetara eramateko asmoa duela, eta horrek arriskuan jartzen du lantegiaren etorkizuna»

netan, lan esparrutik harago ere, etxebizitza krisiak bortizki astintzen du Aiaraldea».

ELAk eta LABek ereduari egozten dizkiote enpresa galerak. «Enpresa guztiek komunean duten faktorea kapitalismoaren logika da, zeinaren arabera helburua beti irabaziaz maximizatzea

den», azaldu dute LABeko Maddalen Muguruza Azkarragak eta Ieltxu Orue-ta Dominguezek.

IRABAZIAK ZITUZTEN ENPRESEN ITXIERA

«Horrelako estrategiak beti absentismoaren arazoan, langileen kostu altuetan edo eskualdeko konfliktibitatearen

gaineko diskurtsoetan lerratzen dira», diote sindikatu-kide biek. Agertoki horretan, «helburua ez da enpresaren iraunkortasuna, langileen ongizatea edo eskualdearen etorkizuna, baizik eta beste interes ekonomiko batzuk elikatzea eta haien irabaziaz loditzea». Horren aurrean, «ekintza sindikala antolatzea ezinbestekoa da», diotenez.

«Azken urteetako krisi desberdinetan galdu diren lanpostuen datuak zorroztasunez biltzen ari gara, kopuru zehatzen inpaktua erakusteko», esan dute, eta zeregin horretan «azken urteetan modu ezkutuan eman diren lanpostu suntsiketa prozesuak ere ari gara aztertzen». «Askotan, langileen kopurua murriztea ez da lehenengo aldian erabaki kolektiboaren bidez egiten; enpresak beste neurri batzuk erabiliz langileak gutxitzen joaten dira, itxierara iritsi arte», diote.

Azken itxiera kasu biak, Guardianekoa eta Glavistakoa, ekarri ditu gogora Mikel Etxebarria ELAko Industria Federazioko kideak, eta aipatutako logika horren adibide argi gisa kokatu ditu: «Amerikako Estatu batuetako (AEB) multinazionalen erabaki baten aurrean gaude. Guardian taldeak beti izan ditu irabaziaz, eta enpresa errentagarria izan da. Zer dago itxieraren atzean? Itxi egin nahi dut eta itxi egingo dut. Horrelakoak beste leku batzuetan ere ikusten dugu, adibidez oraintsu BSH enpresan Nafarroan». «Deigarria da –jarraitzen du Etxebarriak– batez ere Glavistako egoeran, instituzioek aukera izan baitzuten proiektu industrial bat aurrera ateratzeko».

«Hemen agerian geratu zen Jaur-laritzako Industria Sailaren borondate eta gaitasun eza, Glavista bizirik mantentzeko», erantsi du, eta azpimarratu du ELAk proposamen bat luzatu ziola Lakuako Gobernuari «lur horiek desjabetzeko, baina ez ziguten kasurik egin». «Hilabete batzuk pasatu dira Guardianeko EREa gauzatu zenetik. Zer dakigu instituzioek une hartan aipatu zuten inbertsoreei buruz? Ezer ere ez. Dena kea zen, iritzi publikoa desbideratzeko eta ahazteko instituzioen ardura labearen amatatzean». ELAko ordezkariaren

hitzetan, «instituzioek, eta zehazki Jaur-laritzako Industria Sailak, aspalditik dute ahaztuta Aiara».

«MUNDUKO BESTE PUNTAN» ERABAKITA

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundearen iritzia jaso du GAUR8k, Aiznize Gastaka Laudioako alkateari egokieraren irakurketa eskatuta. Kezkaz begiratzen dio industria ehunaren egoerari: «Urteak daramatzagu egungo industria ereduaren ondorioak pairatzen eta ez dira ondorio positiboak. Eskualde honetan ehun industrial gero eta ahulagoa da». «Laudion 39 langile kaleratze arriskuan daude, hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren banean, eta Amurrión, Tubos Reunidos, 850 langileri eragiten dien Aldi Batera-ko Erregulazio Espedientearen abian dago irailaren 1etik», nabarmendu du.

«Desindustrializazioa eta industria politika basatiak dira egoera honen ondorio. Eskualdean diren enpresa handiek ez dute bertan aterako duten ekoizpen eta mozkinen aparteko bestelako loturarik eskualdearekin. Ikuspuntu honetatik, berdin zaie enpresa buruei lantegiak hemen zein beste edozein tokitan izan, ez baitute langileekiko inolako konpromisorik izan nahi», adierazi du Gastakak.

«Guardianen kasua dugu adierazgarriena. Produktiboa izaten jarrai zezakeen enpresa bat ixtea erabaki zen munduaren beste puntan, herriko egoera eta bertako langileen errealitatea batere kontuan hartu gabe», gogoratu du. Erantsi du bestelako industria politika bat behar dela, «gaur egun dagoen industria traktorea herrira errotu eta eraberritze prozesuak abian jar daitezkeen behar dugu». Aldi berean, «industria txikia eta ertain berria erakarr» behar dela dio.

Maderas de Llodioneko enpresa batzordearekin dago harremanetan Udala, «zertan lagun dezakegun argitzeko eta gure sostengu eta elkartasuna adierazteko», baita Lakuako Gobernuarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta enpresarekin ere, hemen mantentzeko eta lanposturik ez galtzeko helburuz. Hala ere, kritiko agertu da goiko erakundee-

tatik ezartzen diren politikekin: «Egungo industria politikek kale egiteaz gain, eskualdea eraberritzeko politikek ere kale egin» dutela dio. Gogoratu du, «joera negatiboa gelditzeko», EH Bilduk proposatuta, ponentzia bat adostu zuela Gasteizko Legebiltzarra eskualdea berpizteko, eta bertatik eratorri zirela Berehala Jarduteko Plana eta Eskualdeko epe Luzerako Plana. Lehena 2022 eta 2024 bitartean gauzatu behar zen, «eta honek inpaktu positiboa izan behar zuen epe laburrean, inbertsio potente bat aurreikusten baitzuen, eta horri egonkortasuna emateko, epe luzerako Eskualdeko Plana diseinatu behar zen».

Bada, dioenez, «Berehala Jarduteko Plana gaur egun ez da bere osotasunean gauzatu, eta bere ezau-garririk nabarmenena, gizartean inpaktu positibo azkar bat izatea, erabat desitxuratu da, inbertsio horiek tantaka heltzen direlako eta presio handia egin ondoren, gainera. Eskualdeko Plana ez da errealitate bat oraindik». Horren erakusle da Guardian, aipatu duenez. «Guardianen kasua honen guztiaren adierazlerik nabarmenena izan daiteke. Berehala Jarduteko Planaren inbertsioa garaiz heldu izan bazen, agian ez ginateke egoera berean egongo». Guardian izan zen enpresarentzat egon daitekeen eta behin baino gehiagotan aipatu den inbertsoreaz galdetuta, Gastakak esan du inbertsore bat dagoela, baina Lakuaren esku dagoela proiektu hori garatzea.

Arabako Foru Gobernuarentzat oso bestelakoa da Aiaraldeko industria ehunaren egoera. Ekonomia Garapen Sailaren iritziz, eskualdeko enpresa-egoeraz hitz egiten denean, diskurtsoa alderdi negati-

«Krisian izan edo ez, Aiaraldeak badu indargune argi bat, eta da erantzun sindikal eta soziala beti dagoela eskualdeko langile klaseak eta komunitateak jasotzen dituen eraso ezberdinei erantzuteko», nabarmendu du ELAk

«Enpresek euren interesak betetzeko edozein neurri hartuko dute, eta horretarako inpunitatea dutela dirudi, legala zein instituzionala», dio LABek, eta modu ezkutuan eman diren lanpostuen suntsiketa prozesuak gogoratu ditu

boetan zentratzeko joera handia dago, hala nola enpresen zailtasunetan. Guardian enpresaren itxiera edo Maderas de Llodio enpresaren EEE partziala bezalako albisteek beste batzuk lausotzeko joera dute, hala nola SteelPhalt Murgan irekitzea, edo Vidralak Laudion bere labeak modernizatzeko egin asmo duen 75 milioi euroko inbertsioa. «Industria osagai handiko beste hainbat eskualdetan bezala, egia da



«Arazoa ez da ekonomikoa bakarrik, politikoa da»

Enplegu galerak argi gorriak pizten ditu, lerroburu handiak bereganatzen ditu hedabideetan, baina Aiaraldeak bizi duen krisia ez da industria ehunaren egoerara mugatzen, askoz zabalagoa da, «agerikoa» beste arlo batzuetan, etxebizitza kasu, SOS Aiaraldeak egiten duen irakurketaren arabera. Plataformak fokua jarri du enplegu galerak dituen ondoko eraginetan. Gauzak horrela, enpresa batek pertsiana jaisten duenean, lehen eragina lanpostuen galera da, baina horrek beste guztia ahultzen duela diote: «Merkataritza, kultura, bizitza soziala... eskualdea ahuldu egiten du». Mugimendu ezberdinetako herritarrak biltzen dituen dinamika horren esanetan, azken urteetan galdu diren industriak gainbehera orokor baten parte dira. Eskualdeak bizi duen «gainbehera orokorraz» hitz egiten du, eta defendatzen du arazoa ez dela ekonomikoa bakarrik, politikoa dela: «Eredu batez ari gara: sistema kapitalista heteropatriarkala, elite ekonomikoaren mesedetan ari dena».

Plangintza integral baten beharra planteatu du herri dinamika, eta Lakuako Gobernuaren ardura seinlatu du. Azpimarratu duenez, Imanol Pradalesek gidadzen duen Exekutiboak nahikoa «eskumen eta baliabide» ditu esku hartzeko eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko. «Suspertze planez, inbertsioez eta proiektu berriez hitz egiten digute, baina kontua da iragarki hutsetan geratzen direla, prentsako titularretan». Plan integral bat eskatu du herri dinamika eta hainbat arlotan eragiteko premia aipatu du: osasun publiko «hurbila eta kalitatezkoa ziurtatzeko, anbulatorioak itxi gabe eta itxaron zerrenda amaigaberik gabe»; zaintza duinen zerbitzuak bermatzeko, «bai adinekoentzat zein mendekoentzat»; etxebizitza eskuratzeko benetako aukera bermatzeko, «batez ere gazteentzat, gaur egun alde egin behar izaten dute ezin dutelako hemen bizitza eraiki»; eta lehen sektorea sustatuko duten politikak eta neurriak jasoko dituen. Adierazi duenez, ikuspegi orokor batetik ekin ezean, krisialdia areagotu eta zabaldu egingo da: «Eusko Jaurlaritzak ezin du beste alde batera begiratzen jarraitu. Aiaraldeak konpromiso politiko sendo eta globala behar du, zeren eta, berehala jarduten ez bada, gainbehera ez da soilik industrialia izango, baizik eta soziala eta komunitarioa».

Diotenez, erakundeek etengabe maneiatzen dituzte suspertze planak, inbertsioak eta proiektu berriak bezalako hitzak, «baina iragarki hutsetan geratzen direla, prentsako titularretan, promesa hutsetan».

Aiaraldeko industria zailtasunak izaten ari dela, baina oro har enpresa eta industria ingurune erreferente eta potentzial handikoa izaten jarraitzen du, mugimendu politiko batzuetatik saldu nahi den eskualde deprimitu edo grisaren iruditik urrun», dio Zaratek.

«ABSENTISMO TASA LIDERRAK»

Industriaren egoeran eragiten ari diren lau faktore nagusi ikusten ditu foru sailak, eta arduraren zati bat langileengan jartzen du, zuzenean. Dioenez, eskualdeko industrian «mendekotasun handia dago zenbait azpi-sektoretan, hala nola altzairuan edo industria tubularrean», eta sektore horiek «izugarri aldatu dira, lehiakide berriak agertu dira, eskulan merkeagoa eta ingurumen araudiekiko lotura txikiagoa dutenak». Bigarren faktore gisa bizi dugun testuinguru globala aipatu du: «Izurriteak, gatazka belikoak eta geopolitikoak, Trumpen muga-zergen ofentsibak edo Alemania bezalako merkatuak eragin handia dute sektore horretan». Egoeran eragiten ari den hirugarren faktore gisa, industriaren «izaera oso tradizionala» eta berritze-

ko dituen zailtasunak daude, horrek eskatzen dituen inbertsioen kostu handiengatik. Baina lan harremanak ere aipatu ditu: «Ezin dugu ahaztu lan harremanak konplexuak diren eskualdea dela; soldata-kostu oso altuak, lan gatazka historikoak eta absentismo tasa liderrak Estatu mailan, Aiaraldeko enpresen aurka jokatzeko duten elementuak dira enpresa inbertsio berriak egiteko orduan».

Eskualdeak dituen indargune eta ahuleziez, Aiaraldeak duen «kokapen bikaina» azpimarratu du. «Gainera, kokapen pribilegiatua du azpiegitura logistikoz multimodaletara iristeko, hala nola Bilboko Portura, Jundizko Portu intermodalera edo Gasteizko aireportura, baita Europa eta Afrika alderako errepide bidezko garraio-autobide nagusietara ere».

Eskualdeak dituen erreferentziazko lanbide-heziketako zentroak eta ibarreko industrietatik hurbilak kokatu ditu, era berean, indarguneen artean, baina ahuleziak ere aletu ditu: «Lurzoru industrialik eza, adibidez». Kapitulu horretan, Laudioko Udalari leporatu dio «desindustrializatzearen aldeko

Arabako Foru Aldundiaren iritziz, udalek lurzorua enpresa proiektuen esku jartzea falta da eskualdean, baita «lan esparru berri bat» ezartzea ere, «absentismoa murrizteko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko, besteak beste»

Epe laburrean inpaktu positiboa sortu behar zuen plana «erabat desitxuratuta» ikusten du Udalak, «inbertsio horiek tantaka heltzen direlako eta presio handia eginda», eta Eskualdeko Plana ez delako «errealitate bat oraindik»

Astelehenean greba mugagabeari ekin zioten Maderas de Lodioko langileek, plantilla osoaren atxikimenduari. Aritz LOIOLA | FOKU

apustu garbia» egitea, «beren hirigintza-planetatik garapen industrial berriak egiteko aukerak kenduz». Bigarren ahulezia trantsizio energetikoarekin lotzen du, «energia berriztagarria sortzeko eta banatzeko azpiegiturarik» ezarekin, hain zuzen.

Eskualdean zabaldu den kezkaren aurrean, berriz, «mezu argia» zabaldu nahi du Arabako Diputazioak: «Mezua argia da: fidatu gaitezen Aiaraldeaz. Eskualdeak potentziala du, etorkizun industrial oparoa du, eta elkarrekin lan egin behar dugu hori aprobetxatzeko. Itun politiko eta sozial zabala behar da eragile guztiok norabide berean lan egin dezagun Aiaraldearen etorkizuna bermatzeko. Proiektu industrial berriak erakartzeko edo eskualdeko enpresetan berrikuntza edo garapen jasagarri lehiakorra sustatzeko ahaleginak ez du ezer bali, proiektu horiek hartzeko udal eta gizarte ahaleginak laguntzen ez badu».

Ramiro Gonzalez buru duen foru gobernuaren hitzetan, «itun politiko eta soziala» behar da, «eragile guztiok norabide berean lan egin dezagun Aiaraldeko etorkizuna bermatzeko». Eta Foru Aldundiak dioenez, adierazleek hazten jarraitzen duen industria erakusten dute Aiaraldean, eta erakundeak ahalegin handia egiten ari dira eskualdean industria bultzatzeko neurriak abian jartzeko.

Diputazioaren ahaleginei dagokienez, azken urteetan eskualdean egindako inbertsioak nabarmendu ditu, eta horien artean Kexaako multzoaren erosketa eta balioa emateko ekimena, Laudio Antzokiari emandako babes, industria poligonoen modernizazioa edo Aiara Industrial Lab, enpresa ertain eta txikien digitalizazioa eta unibertsitatea eta enpresen arteko lotura indartu nahi duen proiektua aipatu ditu, besteak beste. Hala ere, foru Gobernuaren esanetan, «beharrezkoa da udalerriek industria-lurzorua enpresa-proiektuen esku jartzea, eta enplegua sortzen duten industria-ezarpenak erraztuko dituzten politikak. Eta beharrezkoa da, halaber, lan harremanen esparru berri bat ezartzea, absentismoa murrizteko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko, besteak beste».





Elena LAZKANO ORTEGA

Donostiako EHU-ko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Zein da zein, Pepper?

Nabarmen, robot sozialek elkarrekintza natural eta pertsonalizaturako gaitasuna erakutsi behar dute, eta horretarako, ezinbestekoa da aurrean duten hori nor den ezagutzea.

Epe luzerako elkarrekintzen kasuan, adibidez, robota etxean izango badugu laguntzailer gisa, ezaugarri biometriko gogorak erabili behar dira ezinbestean: begien kolorea, aurpegiaren forma, aurpegiko beste zenbait marka... hauek datu sentisiblerak dira, eta pribatasun kezkak sortzen dituzte. Baina epe motzeko elkarrekintzetarako, horren intrusiboak ez diren atributuez baliatu gaitzake, ezaugarri biometriko bigunez, alegia: nolako jertsea dugun soinean, praka motzak edo luzeak daramatzagun, zapata gorriak edo beltzak ditugun, betaurrekorik bai edo ez, etab. luzea. Nola harrapatu hauek? Adimen artifiziala erabiliz, noski!

Ikusizko hizkuntza-ereduek (Visual language Model, VLM) irudi edo/eta testuaren gainean arrazoitzeko gaitasuna erakusten dute, ez dira berriak, hamaikada bete dute jada. Lehenengo ereduek sare konboluzionalak erabiltzen bazituzten irudietatik ezaugarriak eratortzeko, gaur egun hizkuntza-eredu handi (Large Language Model, LLM) modernoetan daude oinarrituta, eta arrakasta handia izaten ari dira. Irudien edukia testu moduan azal dezakete, irudien inguruko galderei erantzunez (Visual Question Answering, VQA) edota azalpen batekin bat datorren irudiak bilatuz, besteak beste.


Ikusizko galdera-erantzun (VQA) ereduak, berez, VLM mota bat dira.


Konputagailu bidezko ikusmena eta lengoaia naturalaren prozesamendua konbinatzen dituzte irudi batek gordezten duen informazioa ulertu eta interpretatzeko. Haien ezaugarri behinena, galdera motzei erantzuteko prestatuta egotea da. VQA ereduak errendimendu lehiakorra erakuts dezakete berezko entrenamendurik gabe, “zero-shot” moduan. Ez da ezaugarri makala hau, datu-base erraldoiak eraiki, etika batzordeak aztoratu eta, areago, txartel grafikoz jositako ordenadoreak erretzen baitabil-tza gaur egun AA orokorraren lehian dabilzan agenteak, ereduak entrenatu eta egokitzeke.

Ikusizko galdera-erantzun eredu batez baliatu gara gure Pepper robota aski ezaguna den “Zein da zein?” jokoan aritu dadin. Pepper-ek inguruan dituen pertsonak desberdin ditzake BLIP-2 ikusizko galdera-erantzun sistema aurre-entrenatuaren bidez. Fitxarik ez dugu erabiltzen, joko bizia baizik. Korro bat eginez robota inguratzen du-

ten pertsonak hartzen dute parte, eta robota eta jokalarik bat izango dira asmatzailea bata eta jokoa- ren gidaria bestea, txanda- ka. Gidaria gizakia zein Pepper izanda, robotak pertsonak kokatu behar ditu bere inguruan, biratu ahala begi-kolpeak eman eta kameratik jasotzen duen irudian pertsonarik dagoen erabaki. Azken funtzio hori YOLO1-k beteko du. Gero, gidariaren kasuan, korroko pertsona bat aukeratu beharko du eta asmatzailearen galderak erantzun beharko ditu; edo beste aldera, galderak egin beharko ditu eta inguruko pertsonak baztertzen joan, jasotako erantzunen arabera.

Etorkizun hurbilean, agian etxean izango duzun robotak esango dizu ea zure janzkera bat datorren eguraldiarekin. •





GAUR8



ireki gure leihoa

046 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

BIXKEK

OROIMIN URDINAK
ETA GORRIAK

MACAO

KASINOETAN GORDETAKO
HARRIBITXIA

VALDEREJO

BASATIA ZEIN
EDERRA

FENIX MUSEOA

MIGRAZIOA, ARTEAREN
ETA ISTORIOEN BIDEZ

SARA QIU

ZARAGOZATIK
TXINARA BIZIKLETAZ

Egin planak Arteleku arte zentroa, gogoan; Getxoko Komiki Azoka; Artzain Eguna Eulaten...

Munduan pasieran Beppu, 'Bederatzi infernuen hiria'; Wuppertal Schwebabah teleferikoa; Brasil eta Australia, Arlesen gonbidatu; Gorputz modernoak Venezia errenazentistan; Whitby-ko Motorren Rallya; Schneeferner, arriskuan; Lalibelako tenplua...

